...eta Kitto!
2016-11-26 963 zkia.




# Iragan industrialari lotutako ALTXORRA

Catalana Occidente
Seguros

Eibarko Txikito, 8
Tel. 943 200 908
Mobila. 610 422 179
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K



ASEGURUAK

- Erantzukizun zibila
- Autoak
- Bizitza eta Jubilazioa
- Osasun asegurua
- Istripu banakako eta kolektiboak
- Arrisku anitzetarako: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa txikiak eta ertainak, PYMEak, Tailerrak

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**: J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**
Alfa: 1920-1960

**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

2015 Bikain

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KURUTZIAK EGIN.-** Harritu. Aitaren egin. *"Esan netsanian zelan ziren gauzak kurutziak egitten geldittu zan"*.
**KURUTZIAN JOSI.-** Gaztelerazko **'crucificar'**. *"Erromatarrak gaizkilletzat eukazenak kurutzian josten zittuen"*.
**KUTUN.-** Orratzak eta jostorratzak sartuta eukitzeko jostunek erabiltzen duten almohadilla modukoa. *"Nere alabiak kutun politta egin desta eskolan"*. Begikoa, oso maitea. *"Ai nere bihotzeko kutuna, etorri zaittez neregana!"*.

# astean esanak

"Nik pentsatzen nuen 2016an dagoeneko robotekin biziko ginela eta espazio-ontzietan bidaiatuko genuela. Baina ez, oraindik hegazkin kutreekin jarraitzen dugu, gerra ondorengoko autobus itxura duten horiekin.
Nire belaunaldikoek seguru nago etorkizuna beste modu batean irudikatzen genuela, baina daukagunarekin konformatu behar. Egia esan, ni zaharra izan naiz beti. Nire amarrua ez da gazte irautea, buruz betidanik izan naizelako zaharra: ez heldua, nagusia baizik"

(ALASKA, ABESLARIA)

"Etxeko langileen %91 zaintzeko kontratatu dituzte, horietatik %97 zaharrak zaintzeko; langileen %79ak astean 60 ordu baino gehiago egiten ditu lan, herenak ez du ordu bat bera ere libre astegunetan, eta %24k baino ez du hartzen 36 ordu jarraian atsedena, legeak agintzen duen moduan. Bestalde, %85ak ez du kobratzen gutxieneko soldataren proportzioan. Gizarte Segurantzan alta emanda dauden langileen kopuruak gora egin du, bai etxe barruan baita etxetik kanpo lana egiten duten langileen kasuan ere. Horrez gain, %13,94k ez du paperik"

(ETXEKO LANGILEEN ELKARTEA)

"Imajinatu sistema adimentsu bati agintzen diozula paper klipak egiteko. Pentsatzen hasiko da nola egin ahal eta klip gehien: lantegi gehiago kontrolatzen baditu klip gehiago egingo dituela ondorioztatuko du. Azkenean, bide bat bilatuko du planeta osoa klip bihurtzeko, eta ezingo dugu gelditu. Gizateria egona da arriskuan lehen ere, sistema informatikoen erruz: eraso nuklearra gertatzeko zorian egon zen Gerra Hotzaren garaian. Sobietar Batasunak eredu estatistiko bat erabiltzen zuen AEBk erasoa jotzeko aukerak kalkulatzeko eta sistemaren okerrak erasoa gertatzear zela zioen"

(ANDERS SANDBERG, FUTUROLOGOA)

## Lau autobus Logroñoko kartzelara martxan



**Ezker abertzaliak antolatuta, Espaiñia eta Frantziako 74 espetxetara zapatuan egin ziran martxetan** 3.500 lagunek hartu eben parte eta Debabarrenetik lau autobus juan ziran Logroñoko kartzelara. Parte hartzen egon ziranak handik bueltan azaldutakuari jarraittuta, ez eben poliziarekin arazorik euki: "*Aillegau eta jarraixan ekitaldi xume bat egin genduan. Adar eta txalapartiarekin hasi giñan eta, ondoren, Keika eta Xarma taldietan jardundakua dan Jon Kirru Iparragirrek, Ibon Iparragirre presuaren anaixak Deabruak Teilatuetan taldiaren 'Zuentzat' eta Mikel Laboaren 'Martxa baten lehen notak' kantak abestu zittuan, gitarrarekin lagunduta. Jarraixan Unai Larreategi eta Jone Salinasek agiri politikua irakorri eben eta, ondoren, kalejira txiki bat egin genduan 'Euskal presoak etxera' modukuak oihukatuta eta kantauta, patixo eta zelden parian, presuak hobeto entzuteko eta patixo eta zelda leihuetatik oihuak egin zittuen. Hamaiketakua egin eta gero etxerako bidia hartu genduan*".



asteko
**301.155**
datua

***euro pagau dittue Eulogio Garate eta Mutiola kaliak lotzeko igogailluaren biharrengaittik: 9 metroko ibilbidia betetzen dau, fatxada-lerrokaduratik 3'50 metroko tartiak aldenduta dago, Mutiolarekin alkartzen daben pasareliak 11'68 metro neurtzen dittu eta 630 kilo (8 lagun) hartzeko ahalmena dauka.***

## Errefuxiatuen alde

**Errefuxiatuen inguruko krisixa dala eta, bixarko martxak eta bestelako ekitaldixak** deittu dittue Europako hainbat hiritan (#safepassage) eta Eibarren be horren harira manifestaziñua deittu dabe: CARE alkartekuak antolatuta, bixar 12:00xetan Untzagatik abiatuko da, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Arragueta, Errebal eta Toribio Etxebarria kaliak ziharkatzeko. Untzagara bueltan sartzian, agiri bat irakorritta amaittuko dabe ekitaldixa. Parte hartzera doiazeneri ahal badabe txaleko reflektantiak eruateko eskatu detse, *"salbamendu-jakak irudikatzeko"*. Manifestaziñuak, bestiak beste, udalaren atxikimendua jaso dau.

## Eibarko Librek deittutako mobilizaziñua eguaztenian

Eibarko Librek aditzera emon dabenez, ***"Naroa Ariznabarreta eibartarra datorren astian,*** *eguaztenian epaituko dabe oin dala 9 urte egindako protesta batengaittik eta, hori dala eta, eguazten arratsalderako, 19:00etan Untzagatik abiatuko dan mobilizaziñua deittu dogu"*. Bide batez, auzi honen harira iazko azaruan Untzagan martxan egon zan Askagunian parte hartu eben eragille zein norbanako guztieri eskerrak emon nahi detsez *"baitta bideuan agertzen ez diran taldieri be: Eibar Sahara Elkartea, Jaixak Herrixak Herrixandako, Ikasle Abertzaleak, Gure Esku Dago, Euskal Herrian Euskaraz… eurak parte hartu ezian Askegunia eta herri honen erronkak aurrera etaratzia eziñezkua litzake eta"*.

Eibarko Librek diñuanez, *"2007xan, Euskal Herriko gazte mugimendua desartikulatzeko asmuarekin, Espaiñiako Auzitegi Gorenak Jarrai-Haika-Segi taldiaren kontrako auzia abiarazi eban eta, horren kontra protesta egitteko antolatu ziran ekintzetako batian, A-8 autopista moztiagaittik deittu dittue Naroa Ariznabarreta eibartarra eta bestiak"*. Eibartarrarekin batera Asier Alberdi deustuarra, Saioa Zerain gasteiztarra, Aritz Azkona arrietarra eta Ainara Ladron elgoibartarra deittu dittue epaitegira. Epaiketia aurreko abenduan egittekua zan, baiña gaztiak ez ziran deklaratzera juan eta, hainbat gorabehera tartian, epaiketia datorren astera arte atzeratu bihar izan eben.



# Marino Plaza artistia hil da



Marino Plaza berak egindako Ormaetxearen figurarekin.

**Martitzenian hil zan Marino Plaza (1943-2016), Lasturren bizi zan artista eibartarra.** Fernando Beorlegi, Daniel Txopitea eta Iñaki Larrañaga Iglesias artistekin batera, 1974an Gorutz Taldea sortu eban laukotian egon zan Plaza. Sasoi hartan Euskal Herrixan egitten zan paisaje idealista eta margolan kostunbristetatik aldentzeko asmuarekin osatu eben taldia eta, bide batez, *"bide barrixak ikertzeko eta alkarrekin erakusketak antolatzeko"*. Taldaren lanak Eibarren ez eze Elgoibarren, Gernikan, Irunen, Gasteizen eta Iruñean egon ziran ikusgai, bestiak beste. Geruago, artista bakotxak bere bidiari bakarka ekin zetsan. Halanda be, 2004an erakusketa kolektibua egin eben Donostian, Egia kultur etxian, "Reencuentro Grupo Gorutz" izenburuarekin. Hori izan zan Gorutz taldiaren azken erakusketia. Eibarren Marino Plazaren lanak Portalean ikusteko aukeria egon zan oin dala urte batzuk, 2012xan Debagoiena eta Debabarrenako hainbat artistak alkarrekin egindako "Hiperasia" izenburuko erakusketan.

**Leire Iturbe**



# 75 urtiak ospatzeko jaixa

**Aurreko asteburuan, zapatuan Txaltxa Zelaixan etaratako erretratuan** ikusten dittuzuenak 1941xan jaixotakuak dira eta, aurten 75 urte beteko dittuela eta, "diamantezko ezteiak" modu berezixan ospatu nahi izan zittuen eta lortu be lortu eben, egun-pasa edarra egin eta gero etxera pozarren bueltau ziran eta.

# autuan

## ...ETA KITTO!-REN BATZARRA

**Martxuaren 17xan egingo dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteroko batzar nagusixa, alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartean), 19.00etan lehen deialdixan eta, ordu horretarako bazkidien erdixa baiño gitxiago agertuz gero, billeria ordu erdi geruago, 19.30xetan hasiko da. Bazkide guztieri billeran parte hartzeko dei egitten jakue.**

## ABIAN-EN LEHEN BATZARRA

**Eibarko ezker abertzaliak, beste herri batzuetan egindakuari jarraittuta, ABIAN prozesuari ekingo detsa eta horren inguruko lehen batzarra bixarko deittu dabe: billeria Arrate Kultur Elkartean egingo da, 09:30xetan hasi eta 13:30ak aldera amaitzeko. Etorkizunera begira proposatzen daben tesi nagusixa "hautabide independentista" dala aurreratu dabe.**

## SANJUANETARAKO KALE-SALMENTA

**Aurtengo San Juan jaixetarako eskaeriak aurkezteko epia datorren astian zabalduko dabela emon dabe aditzera udal ordezkarixak. Kalian saltzen jardun nahi dabenak martxuaren 1etik apirillaren 8ra (egun bixak barne) eukiko dau eskaeriak presentatzeko aukeria. Informaziño gehixagorako Pegorara juan edo eibar.eus webgunian begiratu leike.**



**ANDONI ARGOITIA URKIOLA**
**III. URTEURRENA (2013-II-28)**

**Beti izango zara gure artean**

ZURE FAMILIA









# "Zatarra arte izan arte!"

**Biharrian alkartekuak, Eibarko Armagintza Museuarekin alkarlanian, Ana Orozko artista eibartarraren** "Zatarra arte izan arte!" lana aurkeztu eban atzo arratsaldian. Lana argitaratziaz arduratu diranen berbetan, *"Eibarko historixan zihar sortu diran diseiñu grafikoko eta industrialeko objektuetan inspiraútako lana da. Liburu formatua dauka eta ume nahiz heldueri zuzenduta dago"*. Publikaziñua aurkeztiarekin batera, museuan martxuaren 23ra arte ikusgai egongo dan erakusketia zabaldu eben, *"diseiñu grafikua oiñarri modura daken hainbat materixal"* ezagutzera emoteko asmuarekin. Erakusketia osatzeko erabilli dittuen gauza guztiak sasoi diferentietan Eibarko taillarretan sortutakuak dira.

Bestalde, Biharrian ekimeneko partaidiak eta eurekin batera epai-mahaixa osatu daben Ainara Atorrasagasti DOT eta Mondragon Unibertsitateko irakasliak aho batez erabagittakuari jarraittuta, aulkixaren diseiñu lehiaketako sariduna Arquimañaren "Ei!" izan dala emon dabe aditzera, "gure eskakizunak primeran betetzen dittualako". Sari banaketa ekitaldixa gaur egingo dabe, 15:00etan, eta horrekin batera lehiaketara aurkeztutakuekin erakusketia zabalduko dabe.




# Memorixa historikuari lotutakuak Elgetan

**Bixarko ekimen bi antolatu dittu Elgetako udalak: 17:00etatik aurrera apirillaren 26xan** egingo daben Intxortako borrokaldixen errekreaziño historikua eta andra erresistente eta errepresaliatuen ingurukuak presentauko dittue Espaloia kafe antzokixan. Eta gabeko 21:30xetan, barriz, memorixa historikua ardatz dakan ikuskizuna hartuko dau Espaloiak, Barricada taldeko abeslarixa izan zan "El Drogas" eta "La banda de la (des)memoria" bere taldiaren eskutik.

# Kiroletarako gune barrixa zabalik

**Aurreko zapatua inaugurau zittuen zezen-plazako kirol pista barrixak,** gaztien parte-hartziarekin Multikiroletako jokuak eginda. Kirola praktikatzeko aukeria emoten daben gune barrixa preparatzeko biharrak iazko azaruan hasi zittuen eta ointxe, otsaillian amaittu dittue Gabika eraikuntza-etxekuak: beste ezertan hasi baiño lehen, zezen plazan hormigoizko zorua bota eben eta, horren ondoren, daguan premiñiaren arabera kendu edo ipiñi leikiazen kirol pista bi egin zittuen, bata tenisian jarduteko eta bestia foballian edo saskibaloian jokatzeko. Horretarako biharrak 84.554 euro kostau dabe (BEZ barne).







*argazkiak:* **Leire Iturbe**

## Torrealdai eta Ibarretxe

**Martitzenian, 12:30xetatik aurrera Armerixa Eskoliaren eskutik egingo dan "Ondo Egindako Lana"** programaren bosgarren saiuan, Joan Mari Torrealdaik eta Juan Jose Ibarretxek jardungo dabe alkarrekin berbetan, euskeraz garatuko daben ekitaldixan. Antolatzailliak azaldu dabenez, "euskal kulturaren suspertzaille eta eragille haundixa dan Torrealdairi egin daben biharra zein bere ekarpenak aitortu nahi detsaguz. Bere biharraren inguruan berba egitteko eta bere etorkizunari buruzko hausnarketia egitteko, berarekin batera Juan Jose Ibarretxe lehendakari-ohia izango dau solaskide".



*Joan Mari Torrealdai euskaltzale sutsua izan da beti eta merituak be halakuak egin dittu hainbat sari jasotzeko.*

Torrealdai euskal idazle, kazetari, soziologo eta euskaltzaiña ez eze, beti izan da euskaltzale sutsua eta argittara emon dittuanen artian "Iraultzaz" (1973), "Euskal idazleak gaur" (1977), "Euskal Telebista eta euskara" (1985), "XX. mendeko euskal liburuen katalogoa" (1990-1992), "Euskal kultura gaur" (1997), "El libro negro del euskara" (1998), "Martin Ugalde" (1998), "La censura de Franco y el tema vasco" (1999), "Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura, 1936-1983" (2000) dagoz. Egunkariaren aurka abiatutako prozesuaren barruan, 2003an guardia zibillak atxilotu eban eta, urtietan denetarik jasan eta gero, 2010. urtian kargu guztietatik absolbidu eben. 2015ian Manuel Lekuona Sarixa jaso eban.

## Eraikiñaren Ikuskapen Teknikuari buruzko hitzaldixa




**Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak antolatuta, "EIT edo Eraikiñaren Ikuskapen Teknikua" izenburuko hitzaldixa** egingo da Portalean (areto nagusixan) datorren astian, eguaztenian, 19:00etan hasitta. Judith Ubarrechena, Gipuzkoako Arkitektoen Elkargoko komunikaziño arduradunak egingo dau berba eta, bestiak beste, Eraikiñaren Ikuskapen Teknikua zer dan, derrigorrez zeintzuk egin bihar daben, bizilagun komunidadiari dirua aurrezten zelan lagundu leikixon eta intereseko beste kontu batzuk argitzen ahaleginduko da. Hitzaldira sartzia libria izango da eta, antolatzailliak diñuenez, *"gaixa bizilagunen komunidadiendako bereziki interesantia da".*






JABI HERNANDO Donostian bizi den sendagile eibartarra Osasuna eta Errausketaren Ikerketarako Taldeko partaidea da. Badira urteak, errauste-plantek osasunean sortzen dituzten kalteak frogatutzat emanda, gizarteari eta politikariei informazioa kaleratzen hasi zirela. Horrela, 2002an oihartzun mediatiko handia lortu zuten orduan kaleratutako manifestu batekin. 2004an Errausketa eta Osasuna sinposioa egin zuten Gipuzkoako Sendagileen Elkargoan. "Europako mugimendu aurreratuenekin batera", errauskailuak behin betiko baztertu eta irtenbide osasuntsuenen alde egitea eskatzen dute.



# Jabi Hernando:

## "Errauskailuak baztertu eta hondakinen kudeaketa arduratsua egin behar dugu"

*- Ikerketen arabera, zeintzuk izan daitezke kalterik handienak jendearentzat?*

Horko aurreikuspenei jarraituz, kalte nagusiak bi mailatan banatu daitezke: sortzetiko malformazioa dago, alde batetik, eta minbiziaren arlokoa, bestetik. Lehen esparruari dagokionez, erbi-ezpainaren kasuan gaitza %30ean handitzen da eta giltzurrunaren kasuan %55. Minbizietan, bestalde, ikerketa horien arabera gibelekoa %29 areagotzen da eta biriketakoa %14. Badago beste ikerketa bat ere, berezko garrantzia duena eta Carlos III.a Institutuak egindakoa, non ikusten den minbiziaren hilkortasunak zelan egiten duen gora: pleuraren kasuan %84 eta leuzemiarenean %24, arazo kardio-baskularretan eta ugalkortasunakoetan duten eraginetatik kanpo.

*- Hala ere, azken belaunaldiko errauskailuek egoera hori hobetzearen alde joko zuten, ezta? Kalte gutxiago eragingo dute...*

Jakina, baina kalteak gero eta gutxiago izanda ere, osasunak galtzen irtengo du beti: hori diote gure datuek. Hondakinak errauskailuan erretzerakoan, bi produktu mota sortzen dira hortik: airera doazen gasak eta mikropartikulak batetik eta, bestetik, errautsak. Aurrerapenei esker, filtroekin-eta zati handienak ez dira airera joango, baina azkenerako material berberei buruz dihardugu hitzegiten: dioxinak, metal astunak... Txikiagoak izanda ere, hor daude, airean. Isuritako kutsatzaileak kaltegarriak izango dira beti, isuritzen direlako bakarrik, beste barik. Gero, handik hamar urtera minbizia sortzeko gai diren alaez... horrelako daturik ez dago. Eta ateratzeko gogorik ere ez. Zubietako errauskailua egin behar dutela-eta, ez gara ba inguruan bizi direnekin azterketak egiten hasiko... Zuhur jokatzea beharrezkoa da.

*- Kalteen eragina zenbat kilometrotara zabaltzen da? Hori ikertu da?*

Ikerketa gehienak 5 eta 15 kilometroren artekoa aztertu dute, hor ikusten delako gehien. Zubietaren kasuan, 5 kilometroko radioan 46.000 biztanle bizi dira, eta 10 kilometrokoan 272.000. Ez da kopuru makala! Eta, kutsadura atmosferikoaz aparte, lurrera jausten diren partikulena dugu eta hori bai dela kontrolagabea: barazkiei eta animaliei zenbateraino eragiten dieten... mutazioak sor daitezke hor, transgenikoak...

*- Kalte horiei zelan egin diezaiekegu aurre? Zenbat iraun dezakete kalte horiek gure gorputzetan?*

Horren ingurukoa ere ez dago aztertuta. Baina, tabakoarekin gertatzen den antzera, eta zigarroak ez dakit zenbat mila gai kutsakor baditu, horko dioxinak eta furanoak kutsakorrak izango dira beti. Gorputzak, gainera, horrelakoak akumulatu egiten ditu beti, eta metatu. Gure gantzak horrelakoak hartzen ditu eta horren eragina urteetarako da: nahiz eta etxez aldatu, gorputzean daramazu. Horregatik da hain larria, umeengan eta jende gazteengan ere kalte horiek nabarituko direlako.

*- Zuen Ikerketarako Taldeak zelako bilakaera izan du? Administrazioaren aldetik ze jarrera nabaritu duzue? Aldaketarik bai?*

Gure Ikerketarako Taldean 30 partaide aktibo gaude, nahi eta 2004an, esaterako, 500 sinaduratik gora bildu genituen gure lanaren alde. Kanpaina aktiborik ez dugu egin, baina bai jo dugula, orain bezala, gizartearen eta politikariengana informazioa kaleratuz. Horretan, lehenengoa osasuna dela, guztiok ados gaudelakoan. Europa mailan, 2012an Europar Parlamentuak ebazpen batean onartu zuen errauskailuak progresiboki kentzeko eta antzerako beste neurri batzuk. Txingudiko errauskailuarena mahairatu zenean ere Eusko Jaurlaritzaren jarrera nahiko positiboa izan zen, Simposium-a ere egin zen Irunen eta Osasun Sailekoek onartu zuten kaltegarria zela. Gero asuntoa stand-by-an egon da, ez zela egingo usteraino. Zuzenean ez dugu harremanik izan orain arte, baina badugu asmoa alderdi eta sindikatuekin egoteko.

**"Carlos III.a Institutuak egindako ikerketan minbiziaren hilkortasunak zelan egiten duen gora agertzen dute"**

*- Jendea zenbateraino dago sentsibilizatuta errausteareren inguruan?*

Gipuzkoan ondo sentsibilizatuta dagoela esango nuke, baina kalterako: politikoki erabili delako gehienetan. Aldeko eta aurkako iritzien arteko eztabaida da behar duguna, guztiok zintzoki jokatuta. Gauza hainbeste aldrebestu da ematen duela atez-atekoaren kontra daudenak errauste-plantaren alde daudela. Eta hori ez da horrela: gu ez gaude atez-atekoa gomendatzen. Gure funtzioa da errausteak dakarren kalteaz ohartaraztea. Jakinda, gainera, ikerketak egitea oso zaila dela, horretan gastatzeko dirurik ez delako bideratzen.

Gure herriko industria-ondariak merezi daben garrantzixa euki deixan lehelengo pausuak emoten hasitta dagoz: Mikel Aparicio Azpilikueta arkitektuak Ego Ibarra batzordiarendako egitten diharduan ikerketiaren lehen zatixa amaittu barri dau, Eibarren daguazen industria-eraikin guztiak identifikau eta eraikinoi buruz artxibuan daguazen datuak batu dittu. Berak azaldu desku urtietako biharrori zelakua izan dan.

# Urria balixo daben TAILLARRAK



Eraikin industrialak jaso zittuen arkitektuak biharrerako askatasun haundixa zeken eta gauzak ondo egitten ahalegindu ziran.

Arkitekto eibartarrak Ego Ibarra batzorderako egindako biharrak hiru ardatz nagusi dittu: *"Eibarko industria-eraikiñen datu-base zihetza sortzia, horrekin batera herriko ondare industriala sakon aztertzia eta aurrera begira, etorkizunian, hirigintza arluan har leikiazen erabagixetarako bidiak finkatzia".*

Hain zuzen be, hórretxek dira bere tesi-doktoralerako oiñarrixak. Dana dala, tesixari heldu baiño lehen, Ego Ibarra batzordiarendako ikerketia amaittu nahi dabela esan desku: *"Izan be, Ego Ibarrarendako ikerketia batez be dibulgaziñuari begira egindakua izango da eta tesixak orohar jendiarendako ulertzeko gatxaguak diran beste kontu batzuk be jasoko dittu".*

Bestiak beste, hónetxek dira Ego Ibarrarendako ikerketiak eskatu detsatzen biharretako batzuk: industria-eraikin guztieri buruzko datuak batu; herriko industria-ondarearen eraikin esanguratsuenak identifikau eta sailkatu; industria-eraikiñak oiñarri modura hartuta, Eibarko hiri-bilakabidia ikertu; argazki-artxibuak arakatu; Udal Artxiboko datuak eta Hirigintza saillekuak jaso; arkitektuen artxibo personalak aztertu; eraikiñak bisitatu eta aztertu; taillarretan biharra egin dabenak alkarrizketatu; eta katastrua eta Jabetza Erregistrua, ortofotoak eta abar kontsultatu eta aztertu.

Mikel Aparicio Eibar eta Bartzelona artian, toki bixetan txandaka bizi danez ikerketa-lana be tarteka egitten juan da: *"2013. urtian hasi nintzan. Lehelengo eta behin herriko eraikin industrialen inguruko informaziño billa hasi nintzan, hórren inguruan zer eguan jasota jakitteko. Bestiak beste Eusko Jaurlaritzako Patrimonixo saillaren datu-basera jo neban, katalogauta eguazen eraikiñak zeintzuk ziran, hórren inguruan zelako informaziñua zeken, bakotxaren gaiñeko katalogaziño mailla eta beste kontu batzuk ezagutzeko. Horrekin batera Eibarko Udal Planeamendura be jo neban datu billa. Planeamendu hori 2006-kua izanda be, eraikiñetako asko planeamenduz kanpo eguazela ikusi neban eta kasu askotan, gaiñera, eraikiñak eraisteko prebisiñua eguan. Kontuan euki bihar da orduan sasoian eraikuntzaren sektoriak 'boom' modukua bizi ebala, gero etorri zan krisixak holako kontuetan gauzak aldatzia eragin eban eta, bestiak beste, eraikinak botatzeko asmuetako asko geldiarazi zittuan".*






Beistegi Hermanos fabrikia gero Leonardo Azpiri izan zan eta gaur egun etxebizitzak dagoz bertan.

## Auzorik auzoko bisitak

Datuak batzen hasi zanian, herrixan daguazen eraikin industrialetatik *"babestu biharrekuak"* moduan katalogautakuak oso gitxi ziran eta, gaiñera, holako kalifikaziñua zekenak babes-maillarik bajuena zeken.

Edozelan be, batzia lortu eban datu guztiak eskuan zittuala, Eibarko industria eraikiñen inguruko inbentarixua egittiari ekin zetsan: *"Eibar auzotan banatu neban eta auzorik auzo juaten hasi nintzan, toki bakotxian eguazen eraikin industrialak zeintzuk ziran banan-banan jasotzen, bakotxari erretratua etaratzen, zein urtetan eraiki eben katastruan begiratzen, zenbateko azaleria betetzen eban apuntatzen… hórrekin batera biltzia lortu neban intereseko beste datu batzuk gehittu eta bakotxarekin*



***Inbentarixuan jasotako enpresak Eibarko planuan markau dittu jendiak hobeto irudikatzeko.***
*Otaolan 18 enpresa dagoz, Txontan 15, Erdialde eta Behealdian 14, Matsarixan 10, Barrenan 8, Asua Errekan eta Jardiñeta-Ibargaiñen 7na, Aranek 4 eta Azitain, Errekatxu-Bista Eder, Iparragirre eta Ubitxa-Urkin 3na.*

*fitxa modukua osatu dot. Amaittu barri doten inbentarixuan gaur egunian oindiok zutik daguazen 96 eraikinen gaiñeko informaziñua jaso dot, hau da, ez dot desagertuta daguazenen ingurukorik sartu".*

Halanda be, zerrenda luzia da benetan: Pampo, Domingo Guisasola SL, Pinturas Arrate, JAZ Zubiaurre, Sucesores de Fernando Elcoro SA, Marbil, AGME (Aguirregomezcorta y Mendicute SA ), Delteco, Industrias Mail, Gabilondo, Gaztañaga Trocaola e Ibarzabal, Larrañaga y Elorza, Rodisa, Trust Eibarres, Eibarko Mataderua, Gaspar Arizaga, Beistegui Hermanos, Leonardo Azpiri, Fundiciones Aurrera, Laspiur SA, Olave Solozabal y Cia (El Casco), Mendiguren y Zarraua, Untzeta, Acha, Urigüen, Almaral Muzategui, Jose Retolaza, Aguirre y Aranzabal (AYA)-Portalea, Lorentzo Telleria SL, Margola, Cadena Iris, Hermanos Crucelegui SA, Pablo Soroa, BOJ SA, ABC, Nicolas Correa, Alfa Microfusion, Lambretta eraikiña, Norica, Laurona, DEJ, GAC, Transformaciones metalurgicas Norma SA, Armas Garbi...

Inbentarixuan jaso dittuenen artian denetarik dago: *"Zerrenda horretan ezaugarri diferentiak dittuen eraikiñak dagoz: batzuk bakarrik taillarrak hartu dittue; beste batzuk, barriz, mixtuak dira, hau da, zati batian taillarra eta beste batian etxiak euki dittue; eta beste batzuk, BH, Lambretta, AYA…*




*Orduan sasoian modan eguan estilo modernistari jarraittuta egin ziran taillarretako asko. Irudixan, Aurrera fundiziñua izandakua.*



*Mikel Aparicio arkitektuak bere tesi doktoralian gai honen gaiñian sakonduko dau.*

*adibidez, errehabilitaziño baten ostian, gaur egunian industriarekin zerikusirik ez daken bestelako jardueretarako erabiltzen dira".* Inbentarixuak jasotako taillarrak gure herriko plano orokor batian kokatu dittu, herrixaren barruan zenbateko tokixa betetzen daben modu grafikuan erakusteko.

### Ixa 100 eraikin-industrial

Edozelan be, gaur egunian hustuta ikusten dittugun eraikiñen garrantzixa ekonomixatik haratago doiala pentsatzen dau ikerketia egin daben arkitektuak: *"Industriari lotutako eraikinak jaso zittueneko sasoia gure herrixandako benetan inportantia izan zan, orduan ezagutu eban Eibarrek aberastasun haundixena eta, dirua erakartzeko ez eze, industria herrixaren izaeria osatzeko be ezinbesteko faktoria izan zan. Batzurendako herri-*







*Gure herriko orografixiak ez zetsazen gauzak errez ipiñi arkitektueri. Inbentarixuan, taillar bakotxaren datuekin batera, argazkixak eta kokapena agertzen dira. Irudixan, GAC enpresia.*



*Fatxadak eta beste elementuak asko zaindu zittuen eta Eibarko ezaugarrixak ez dira beste iñun errepikatu.*

*xa zatarra eta beste batzurendako politta izango da, baiña eritzixak eritzi, herrixak bere nortasuna eta izaeria bere iragan industrialari zor detsala pentsatzen dot. Hórreri dakan baloria emotia inportantia dala begittantzen jata, gure aitxitxa-amamekin batera 'urrezko' sasoi hartatik geratzen jakuzen bakarrenetakuak hórrek eraikiñok dira eta, horregaittik, bihar dan moduan baloratzen jakin biharko gendukeela uste dot. Hirigunian ixa 100 eraikin industrial dagoz oindiok be eta, daken garrantzixa eta baloria emoten jakiñez gero, hortik ikasi geinke etorkizunian zelako herrixa nahi dogun pentsatzeko. Baiña eibartarrak gara hain zuzen be dakagun altxorrarekin konturatzen ez garen lehenak".*

## Taillar-hirixaren eredua

Eta sentimendueri lotutakuetatik kanpora be, industria-eraikiñak osatzen daben patrimonixuak bestelako balixua badaka: *"Industria-ondare horren balore urbanua be hortxe dago. Eibar taillar-hiri moduan jasotako herrixa da eta, alde horretatik, pareko adibiderik ez dago. Mailla haundi batian orografixa oso konplikauak baldintzatuta egindako herrixa da, taillarrak eta etxiak nahastauta, ahal izan eben moduan eraikitzen juan ziran eta, hórrek ezaugarrixok ez dira beste iñun errepikatu. Bartzelonara masterra egittera etorri eta irakaslieri erakustian danak harrittuta geratzen ziran, holakorik ez ebela sekula ezagutu esaten zesten, eta horrek be bere balixua dakala pentsatzen dot".*

Herrixa ahal izan eben moduan jasota be, eraikin industrialak diseiñatzen jardun eben arkitektuak edifizixuak "gustuarekin, biharra ondo eginda" jaso zittuela ikusi dau Apariciok: *"Orduan sasoiko arkitekturan agintzen eban modernismuari jarraittuta jasotako eraikiñak dira. Arkitektueri biharrerako askatasuna emoten zetsen eta bakotxak bere gustueri segiduta jarduten eban. Batez be taillar inportantienen kasuan modernidadiaren itxuria emoten ahalegintzen zirala agerixan lagatzen daben elementuak dagoz: kurbia egitten daben eraikiñen fatxada batzuetan erabilli dittuen harrixak, adibidez, kurbia emonda ekarrittakuak dira argi ikusi leike, ez dabez harri-zatixak erabilli fatxadiari kurbaturia emoteko, horretarako bereziki landutako harrixak baiño".*

**Idatzizko memorixia egingo dabe eta horreri aplikaziño informatikuarekin lagunduko detse**

Amaittu barri daben ikerketia oiñarri moduan hartuta, aurrera begira oindiok biharrian segiduko dabela aurreratu desku arkitektuak. Ego Ibarra batzordiak azaldutakuari jarraittuta, *"datozen urtiotan ikerketia osatzen juango da, eta arkitekturaz eta hirixaren zer hortaz aparte, taillarren historixia eta bakotxaren prozesu produktibuak be batzen juango gara. Lan horretan, gaiñera, hórrek eraikiñok sasoi batian izan bizittasuna azpimarratu nahi izan dot. Modu batian esateko, eraikiñak gizakiekin euki eben lokarrixaren billa ibilli naiz. Izan be, gure aurrekuak izan ziran, atsedenik hartu barik, barrikuntzaren bide zidorra zabaldu, hazi eta orduko denborako `Eibar marka´ lortu ebenak, industriatik banandu ezin leikian gure izateko modua eratu eta hezurmamitu ebenak".*

Ikerketiaren emaitza moduren batian argittara emoteko asmua dake, baiña emaitza biribiltzeko aplikaziño informatikua be sortuko dabe, *"arkitekturiaren eta eraikiñen barruko bizimoduan sartzeko aukeria emoteko eta pillatutako informaziño guztia harilkatzeko bidia eukitzeko".*

## Jone Olabarri (artista)

# «Jostailuetako alanbreekin jolasten hasi nintzen **bitxigintzan**”

*19 urteko eibartar gaztea gizarte zientzien batxilergoa egiten hasi zen, baina berehala konturatu zen hori ez zela berak jarraitu nahi zuen bidea. Batxilergoa artera bideratu zuen azken urtean, eta ondoren, Arte Ederren graduari heldu zion Leioan. Orain, bere burua pinturaren alorrean kokatzen du etorkizunari begiratuz gero, baina ez du baztertzen, urteak pasa ahala, beste espresatzeko modu batzuk aurkitzea.*







*- Nola hasi zinen bitxiak egiten?*

Umeen jostailuetan etortzen diren alanbreekin jolasten hasi nintzen gabon batzuetan eta gustatu zitzaidan. Handik aurrera, alanbreak erosi eta niretzako bitxiak egiten hasi nintzen, konturatu gabe, eta jendeari gustatu egin zitzaizkion. Ez nuen espero egiten nituen gauzak inoiz salduko nituenik. Horrela, esperimentatzen jarraitu nuen eta alanbreak eta egurrezko bolak utzi eta beste material batzuk sartzen hasi nintzen, adibidez, buztin polimerikoa deitzen dena. Udan, Eibarren bertan ikastaro bat egin nuen horren inguruan eta material hori lantzeko modua gustatu zitzaidan, erreminta gabe lantzen delako, eskuekin. Probak egin izan ditut, koloreekin, formekin,... eta “irudien transferentzia” izeneko teknika deskubritu nuen: argazki edo irudi bat hartu eta ura bakarrik erabiliz, buztinean jartzen dut. Irudi konkretuak edo abstrakzio puntua dutenak erabiltzen ditut. Momentu honetan, labako tenperatura eta *forekin* jolasten nabil, izan ere material honen erreakzioak desberdinak izan daitezke

*- Eta erraza da lagun artean saltzetik azoketara salto egitea?*

Hasieran zaila da. Azoka askotan diru mordoa eskatzen dute postua jartzeagatik eta norbaitek mailegua eman behar dizu. Hala ere, gero normalean gastuak estaltzen dira. Dena dela, badaude jendearengana iristeko beste bitartekari batzuk ere. Nik Facebooken “BlaiBlai” izeneko orrialde bat daukat eta jendeak bertatik egin ditzake eskaerak.

*- Ikasketak eta bitxiak egitea bateragarria da?*

Bai. Bitxiena ez da hilero egitekoa. Azokak edo enkargu askoko garaiak aurreikusten ditudanean egiten ditut; gabonetan esaterako.

*- Etorkizunari begira zer asmo duzu bitxiei dagokienez?*

Udan aukera asko egoten dira; erdi aroan girotutako azokak, merkatuak, leku ezberdinak ezagutzeko aukera,... Nire produktuen barruan belarritakoak, lepokoak, eraztunak, brotxeak, eta gantxoak ditut eta etorkizunerako pultsera gehiago eta diademak egiten hasteko ideia dut.




Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte Kopina moda

kopinamoda

San Agustin, 3
943 204 181



PUBLI RESA

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97
publi.resa@euskalnet.net

# Gazteen egunerokotasuna Instant1ean

**Nerabeentzat "Instant1ean" Instagrameko irudien lehiaketa antolatu dute** Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Atalak eta Gipuzkoako hainbat gaztelekuk (Indianokua gaztelekua tartean), udalekin elkarlanean. Antolatzaileen esanetan, *"asmoa irudi baten bitartez gazteek euren bizitzako une edo instant bat azaltzea da: zer gustatzen zaien, musika, kirola… hau da, egunerokotasunean eurentzat esanguratsuak diren uneak euren Instagramen azaltzea"*. *Horrekin batera, "ikus-entzunezko produkzioen bidez neska-mutilek teknologia ondo erabiltzen badakitela"* erakutsi nahi dute.






Lehiaketan 13-17 urte bitarteko gazte gipuzkoarrek har dezakete parte eta bakoitzak nahi adina argazki aurkez ditzake. Horretarako norberak bere Instagram-eko profila erabili beharko du, @gipuzkoangazte erabiltzaileari jarraituta eta aurkeztu nahi den argazkiari #Instant1ean traola ipinita. Otsailean abiatu da lehiaketa eta lanak aurkezteko epea apirilaren 3an itxiko dute. Irabazleentzat hainbat sari banatuko dituzte: bidaiak eta 300 eta150 euro gailutan eta, horrekin batera, parte hartzen dutenen artean zozketak egingo dituzte. Informazio guztia interneten, gipuzkoangazte.eus/instant1ean helbidean eskuratu daiteke.






## TRENEZ MERKEAGO
### bidaiatzeko txartela

**Renfek 14-25 urte bitarteko gazteentzako txartel berria atera du: "Renfe Joven 50".** Txartel hori erabilita bidaietan hainbat deskontu lor ditzakete gazteek. Bidaia luzeetan eta AVE-ko bidaietan deskontua %50-ekoa izatera ailegatu daiteke, beti ere txartela bidaiatu baino hilabete bat lehenago erosi ezkero. Horrez gain, ohiko bidaietarako deskontuak ere eskaintzen ditu. Txartela internet bidez eros daiteke (renfe.com helbidean) eta 50 euro balio du. Bestalde, txartela lortzeko adin-muga 25 urtekoa izan arren, 26 urtera arte erabil daiteke.


Garrapata


The Rockos


Eroa Naizen

## The Rockos, Eroa Naizen eta Garrapata

**Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak antolatuta, martxoaren 5ean rock kontzertua** egingo da Txaltxa Zelaian, 22:00etan hasita. Musika kioskoan egingo den zuzeneko emanaldian Legarreko musika lokaletan sortutako hiru taldek jardungo dute: The Rockos, Eroa Naizen eta Garrapata.



# osasun DOSIAK



iokin elortza
BOTIKARIA

## ZIKA

Azken urteotan ugaldu egin zaizkigu Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) alerta egoerak. Orain dela urtebete Ebola izan den moduan, orain, azkena, Zika birusarena da.
1950eko hamarkadan ezagutu zen Ugandako Zika basoan (hortik izena). Baina Afrikako mugak hautsi eta beste kontinente batzuk astintzen hasi arte, ez da mundu mailako osasun arazo bihurtu. Birusa Flaviviridae familiakoa da eta Aedes generoko eltxoek transmititzen dute. Gurean ezagunena Tigre eltxoa da.
Gaixotasunaren sintomak ez dira larriak. Esan dezakegu gripearen antzekoak direla, sukarra, buruko mina.... Baina azken hilabeteotan, eta honek sortu du kezka, Amerikan jaioberrien mikrozefalia kasuen igoerarekin lotu da. Oraindik zientifikoki demostraturik ez badago ere, nahiko onartua dago lotura zuzena egon daitekela Zika birusaren eta mikrozefalia kasuen artean, eta honek piztu du alarma egoera.
Oraingoz Euskal Herrian lasai gaudela dirudi, baina laster hasiko gara udako bidaiak prestatzen, eta farmazian hasiko zaizkigu galderak eta zalantzak honen inguruan. Berri onak ditugu hauentzat, eltxoen zaztadak ekiditeko erabiltzen ditugun produktu gehienak baliagarriak dira Aedes generoko eltxoentzat, eta beraz, birusaren kutsatzea ekiditen dute.



## GAZTEEN IDEIAK

arantza alvarez
SEXOLOGOA



Gipuzkoako 13 eta 18 urte bitarteko gazteek amodio erromantikoari buruz dituzten ideiak aztertzeko asmoz egindako ikerketa-lana aurkeztu zuen joan den otsailaren 12an Gipuzkoako Medicus Mundik. Helburua gazteek amodioaz eta sexoaz espero dutena jakitea zen, eta baita amodioak eta sexuak harreman afektibo zein sexualetan duten eragina ezagutzea ere. Gainera, ikerketaren bidez, gazteen osasun sexual eta afektiboan eragina izan dezaketen iritzi negatiboak antzeman nahi izan dira. Emaitzak oso interesagarriak eta, aldi berean, kezkagarriak izan dira. Ikertzaileek 8 ondorio nagusi atera dituzte:
1) Gazteen ustetan, egoera ideala bikotea izatea da, eta bikoterik ez izatea hil edo biziko porrota da.
2) Gatazka harremanarekin lotuta doala uste dute, baita bortitza denean ere.
3) Bikotekidearen etengabeko presentzia eta kontrola gero eta normalagoak dira, eta horretan teknologia berriek (whatsapp...) zerikusi handia daukate.
4) Sexuen arteko desberdintasun batzuk barneratzen dituzte oraindik, batez ere bakoitzak harremanean daukan paperari dagozkionak.
5) Oraindik homosexualitatea eta bisexualitatearekiko gutxiespen-jarrera nahiko irekiak gertatzen dira.
6) Gorputza desio eta kontsumo objetu gisa ikusten jarraitzen dute, gehienbat emakumezkoena.
7) Praktika sexualei buruzko informazioa badaukate, baina oraindik zailtasunak dauzkate horiek gestionatzeko eta norberaren irizpideak ezartzerako orduan.
8) Genero arteko indarkeria, fisikoa batipat, euren bizitzatik kanpo dagoen zerbait bezala ikusten dute. Euren buruari ez diela eragingo uste dute.

*Ikerketari buruzko informazio gehiago: www.medicusmundi.es/index.php/gipuzkoa*



# sex KONTUAK

35. alea

2016ko otsaila

# etxeak zure esku

## Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzen eskaintza oso zabala da.
Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inmobiliarietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalek behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa...
Eskuartean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu.
Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezkete sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.

AUKERA INMOBILIARIA

**www.aukera-inmobiliaria.com**
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



**EIBAR. Legarre** Ref. N911
Oso eguzkitsua eta bista ederrekin.
Berriztua, igogailua eta kalefakzioa.
3 logela. 195.000 €



**EIBAR. Errebal** Ref. N908
4 logela bikoitz eta 2 komun.
(116m$^2$)
Guztiz berriztua.



**EIBAR. Ipurua** Ref. N913
3 logela eta 2 komun.
Igogailua eta trastelekua.
220.000 €



**EIBAR.VPO Iparragirre** Ref. N914
Babes ofizialeko etxebizitzak. 3 logela.
159.600 €-tik. 2 logela 121.100 €-tik.
Denak garaje eta trastelekuarekin.



**EIBAR. Bidebarrieta** Ref. N922
3 logela eta 2 komun.
Igogailua eta kalefakzioa.
210.000 €



**DEBA. Mutrikuko aldea** Ref. N805
3 logela eta 3 komuneko duplexa.
30 m$^2$ko terraza eguzkitsua.
Garaje eta trastelekuarekin. 307.500 €

# EUKI
zerbitzu inmobiliarioak



**T. Etxebarria** — **Galdetu**

90m². 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Trasteroa. Igogailua eta kalefakzioa.



**Isasi** — **100.000 €**

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailu berria.



**Errebal** — **195.000 €**

95 m². 4 logela. Konpontzeko. 2 trastero. Barrera arkitektonikorik gabe.



**Urkizuko dorreak** — **Galdetu**

3 logela, egongela, sukalde-jangela, bi komun. Egoera onean. Garajea aukeran.




Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com

EUKI
zerbitzu inmobiliarioak

API 323

- **Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **Finantziaziorako Bidea**: mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **Informazio Pertsonalizatua**



**San Kristobal** — **90.000 €**

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean. Trasteroarekin.



**Isasi** — **150.000 €**

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean.



**Ipuruako dorrea** — **220.000 €**

3 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Egoera onean.



**Ego Gain** — **150.000 €**

Gela bateko apartamentua, egongela, sukaldea eta bainua. Ezinhobea. Barrera arkitektonikorik gabe.



**T. Etxebarria** — **Galdetu**

146 m². 5 logela, egongela, sukaldea, despentsa eta bi komun. Pisu altua. Egoera onean. Trasteroarekin.



**Urkizuko dorreak** — **Galdetu**

4 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Konpontzeko.



**Santa Iñes** — **110.000 €**

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta trasteroa.



**Ifar Kale** — **137.000 €**

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua.



**Arrate Bide** — **140.000 €**

3 logela. Kanpora begira. Konpontzeko. Igogailua.



**T. Etxebarria** — **Galdetu**

107 m². Egongela, sukaldea, 5 logela, bi komun, igogailua, pisu altua, panoramika zabala, garajea aukeran.



**Mekola** — **Galdetu**

110 m². 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Konpontzeko.



**Milaflores** — **70.000 €**

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Terrazarekin.



**T. Anitua** — **115.000 €**

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora ematen du.



**Barakaldo** — **155.000 €**

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora. Pisu altua. Egoera onean. Igogailua.



**Urkizu** — **Galdetu**

Apartamentu erdiberria. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. Barrera arkitektonikorik gabe.

# Larragest
INMOBILIARIA AGENTZIA

**Calbeton, 22-24 behea**
**Tel. 943 20 00 12 / 690 61 07 15**

www.larragestinmobiliaria.net



**Ifar kale** 182.000 €
Pisu altua. Ezinhobea. Sukaldea balkoiarekin. 2 logela. Igogailua eta kalefakzioa.



**Ipuruako dorreak** 220.000 €tik
Bista eta hainbat alturetako etxebizitzak. 3 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Terraza. Garajea aukeran.



**San Kristobal** 130.000 €
3 logela. Igogailua eta kalefakzioa.



**Isasi** 170.000 €
Pisu altua. 3 logela. Igogailua eta kalefakzioa. Bista ederrak.



**Sautxi** 156.000 €tik
Etxebizitzak eta duplexa. 2 eta 3 logela. Garajea eta trasteroa prezioaren barne.



**Zuloagatarren** 220.000 €tik
100 m$^2$ eta 145 m$^2$ko etxebizitzak. Berrizteko. Igogailua eta kalefakzioa.



**T. Etxebarria** Galdetu
135 m$^2$ko etxebizitza handia. Pisu altua. Egoera oso onean. 2 etxebizitza egiteko aukera.



**Amaña** 90.000 €
Pisu eguzkitsua. Bista ederrak. 3 logela.



**Legarreko dorrea** Galdetu
3 logelako etxebizitzak. Bizitzera sartzeko. Igogailua eta kalefakzioa.



**Mekola** Galdetu
180 m$^2$ eta 153 m$^2$ko etxebizitzak. Ganbara oso handiak eta garaje itxiak. Igogailua eta kalefakzioa.



**Txaltxa Zelai** 136.000 €
Bizitzera sartzeko. 2 logela. Igogailua eta kalefakzioa.



**Amaña** 110.000 €
Ezinhobea. 2 logela. Ganbara eta balkoi handiak



**Untzaga** 179.000 €
Estrenatzeko. 3 logela, armairu enpotratuekin. Sukaldea guztiz jantzita.



**Urkizu aldea** 215.000 €
Erdiberria. Ezinhobea. 2 logela, sukalde-jangela, 2 komun. Igogailua kaleraino.



**T. Etxebarria** Galdetu
Etxebizitza handia. Pisu altua. Berrizteko. Igogailua.



**Barrena** 138.000 €
Etxebizitza berriztua. 3 logela. Igogailua eta kalefakzioa.



**J.A. Mogel** 83.000 €
Aukera paregabea. 2 logela. Balkoia eta ganbara.



**Jardiñeta** 128.000 €
Pisu altua. Handia. Igogailua. 2 logela.



**Jardiñeta** 144.000 €
Etxebizitza berriztua. Oso eguzkitsua. Balkoiak. 3 logela. Ganbara.



**Arrate Bide** 155.000 €
Oso polita. 2 logela. Ganbara.



**Sansaburu** 95.000 €
Ezinhobea. 2 logela.



**Errekatxu** 115.000 €
Ezinhobea. Gazteentzako aproposa. 3 logela



**Bidebarrieta** 179.000 €
Berrizteko. 3 logela. Igogailua



**Jata** 230.000 €
Duplex erdiberria. 2 logela, 2 komun, 2 garaje-partzela prezioaren barne.



**Romualdo Galdos** 125.000 €
Azken pisua. Eguzkitsua. Igogailua eta kalefakzioa. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea balkoiarekin.

dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAZ BAKARRIK
Isasi, 16an
Zure etxea saltzeko modurik azkar, errez eta eraginkorrena
donpiso@donpisoeibar.com
www.donpiso.com Tel: 943 82 05 10 Faxa: 943 20 81 81

HIGIEZINAK ARREGI INMOBILIARIA
Errebal, 20
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

## ETXEBIZITZAKO FATXADA BERRIZTEKO OBRA JASANGARRIAGOA IZAN DADIN...

1. Materialen eta eraikuntzako osagarrien inertzia termikoari probetxua ateratzeko neurriak hartu diseinuan. Masa termikoak eraikinaren tenperatura mantentzen duela ziurtatzen du, udan berotzea eta neguan hoztea atzeratuz.
2. Fatxadetako bero galerak gutxitu. Isolamendua barnealdean, erdiko kamaran edo kanpoaldean jarri daiteke. Fatxada osoa berriztatu behar denean, aukerarik egokiena kanpoaldetik isolatzea da. Horretarako, SATE sistemak (ETICak ingelesez) edo fatxada aireztatuko beste sistema batzuk erabil daitezke.
3. I edo III Ereduetako ingurumen-deklarazio produktua duten materialak erabil itzazu, produktu hauek ingurumen-inpaktuen inguruan informatzen dutelako. Deklarazio hauek dituzten zenbait produktu eta fatxadako birgaikuntza obretan erabil ditzakegunak honako hauek dira: isolamenduak, zurak, xafla iragazgaitzak, pinturak, bernizak eta itsasgarriak, e.a.
4. Material birziklatuak erabili. Esate baterako, agregakin birziklatuak dituen morteroa erabili. Gainera, fatxadetarako hainbat elementu zeramikok beira birziklatua izan dezakete.
5. Fatxaden material eta estalduretan (sandwich panelak, xafla galbanizatuzko panelak, e.a.), metal astun kopuru handia (beruna, kadmioa, kromoa, zinka, nikela) duten material eta estaldurak ekiditea gomendatzen da, euri-urak kutsatu ditzateke eta. Gainera, berunaren erabilera guztiz debekatuta dago. Beste aukera bat, zenbait kasutan, aluminio edo altzairuzko estalduren erabilera izango litzateke.
7. Fatxadan esmaltaturiko produktu zeramikoak erabiltzerako orduan, ziurtatu esmalteek metal astunik ez izatea (plomoa, barioa, kadmioa, molibdenoa, selenioa, banadioa, zinka eta estainua).

agencia inmobiliaria Juaristi

**www.inmobiliariajuaristi.com**

**Arragueta, 2 bis B-behea** 943 20 08 60

*A.P.I.: Rosa Juaristi*



**Bidebarrieta 180.000 €**
4 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Pisu altua. Igogailua.



**Arragueta 175.000 €**
125 m$^2$ko pisu altua. Konpontzeko. Igogailua.



**Arrate-bide 185.000 €**
4 logela, egongela, sukaldea, bainu-gela eta komuna. Terraza handia eta trasteroa.



**Legarre 98.000 €**
3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Behekaldeko txokoa eta garajea aukeran.



**Saratsuegi 169.000 €**
2 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Garajea (2 plaza). Ezinhobea.



**Bista Eder 125.000 €-tik**
Neurri desberdinetako etxebizitzak. Igogailua.



**Urkizuko dorreak 170.000 €-tik**
2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Egongela-jangela, sukaldea, 2 komun eta esekitokia.



**Juan Gisasola 168.000 €**
3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Igogailua.



**Jardiñeta 155.000 €**
3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Kanpora begira. Igogailua.



**San Agustin 230.000 €**
4 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta 2 balkoi. Ganbara.



# Isabel Bolinaga

SAHARAKO umeak euren etxeetan hartzeko prest dauden familien kopuruak behera egin du azken urteetan, eta Eibar-Sahara elkarteak dei egin die eibartar guztiei Saharako umeak hartzeko. Iaz 3 ume etorri ziren Eibarrera, eta horietako bat, Mariam, Isabel Bolinagaren etxean egon zen. Neskatxoaren aurretik, Abdu bere neba izan zuten 4 urte jarraian. Isabelek harreman estua dauka Mariamen familiarekin, bi aldiz egon da bisitan Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetan, eta Abdu eta Mariamen familiari laguntzen jarraitzeko asmoa dauka.

# "Euren seme-alabak Eibarrera ekartzen jarraituko nuela zin egin nien"

***– Udan Mariam izan zenuten etxean, eta aurretik Abdu bere neba ekarri zenuten. Zelako harremana daukazue?***

Abdu 9 urterekin hasi zen etortzen eta 12 urtera arte egon zen. Adin horretatik aurrera ezin dira etorri, zeure poltsikotik ordaintzeko eta ekartzeko prest egon arren. Bere arreba, Mariam, joan den udan etorri zen lehenengoz: 10 urte egingo ditu aurten eta esperientzia oso ona izan da. Aurtengo udan berriro etorriko da. Nire semealabak nagusiak dira eta orain bilobak ditut. Nire semea oraindik etxean bizi zenean etorri zen Abdu lehenengoz. Orain 16 urte ditu eta berarekin harreman estua izaten jarraitzen dut telefonoz eta whatsapp bitartez.

***– Tindufeko kanpamenduetara joateko aukera izan duzu eta ondo ezagutzen duzu hango egoera.***

Abdu ekarri genuen lehenengo urtean joan nintzen lehen aldiz Tindufeko kanpamenduetara nire semea eta ahizparekin. Joan den abenduan, hemengo bakarra nintzenez, Gallartako Sahararen aldeko elkartekoekin batera joan nintzen. Abdu eta Mariamen etxean egoteaz gain, kolaboratzaile bezala ibili naiz Gallartakoekin. 28 orduko bidaia gogorra egin genuen. Aurten abioiaren prezioak asko igo dira eta Loiutik irten beharrean, autobusez Madrilera joan ginen, handik Argeliara abioiez, aeroportua aldatu eta handik Tindufeko kanpamenduetara. Hegazkinak laguntza humanitarioz bete-beteta joaten dira, eta honek dena gehiago geldiarazten du. Gallartakoek premia handia dutenei dirua ematera joaten dira, ur depositoa egiteko, frigorikoak erosteko, komun bat egiteko... Hurrengo urtean bueltatu egiten dira ikusteko aportazioen bitartez edo jaietan txosnak jartzen bildutako diru hori ondo aprobetxatu den. Aurten 16-17 urteko gaztetxoak ere joan dira, eta benetan harrituta gelditu dira, euren begien bitartez ikusi baitute, premia handiak izan arren, hangoak daukatenarekin zoriontsu bizi direla. Hara joan izan garenean, den-dena daukate emateko. Oraingoan, uholdeen ondorioz, ia dena apurtuta aurkitu dut. Asko etxe gabe gelditu dira.

***– Nola animatuko zenuke Eibarko jendea Saharako umeak ekartzera?***

Niretzat oso esperientzia ona da. Beti izan dut gogoa, eta taberna utzi nuenean hasi nintzen Abdu ekartzen. Eurendako dena da desberdina. Hemengo umeak baino infantilagoak dira, han ez daukate hemengoek daukaten guztia (telebista oso gutxi ikusten dute, ordenagailurik eta horrelakorik ez dituzte...). Gauza normalak egiten ditugu (hondartzara, oporretara...) eta goizeetan Ermuan beste haur sahararrekin elkartzen dira jarduerak egiteko. Haurrendako oso onuragarria da udako beroalditik ihes egiteko aukera izatea. Oso gustora egoten dira. Joaten direnean hutsunea sentitzen duzu, baina oso pozik bueltatzen direnez, ni ere gustora gelditzen naiz. Abdu ekarri genuen lehenengo urtean bisitan joan nintzenean familiari esan nion, ahal nuen bitartean, euren umeak ekartzen jarraituko nuela. Beraz, Mariam etorri ondoren familiko txikiena ekarriko dut.



Abenduan Isabel Bolinaga eibartarra Gallartako talde batekin joan zen Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetara. Urteak daramatza udan saharar umeak ekartzen (behean, lehena eskumatik).

Otsailaren 25ean, eguenean, "Negozio txikiak sare sozialen junglan" izenburuko pintxo-pote berezia egin zen Arrate Kultur Elkartean. Sare sozialek negozio edo enpresa txikiei eskaintzen dizkieten aukerak azaltzeko asmoarekin antolatu zuen saioa Ekingune elkarteak, eta hitzaldia elkarteko bazkidea den Miguel Loitxate informatiko eta blogariak eman zuen.




# Sarean dauden aukerak eta arriskuak ezagutzeko ekitaldi berezia antolatu zuen Ekingunek

Miguel Loitxate eibartar informatiko eta blogariak zuzendu du, espazio informal batean, interakzio-elkarrizketa sortzeko asmoarekin Ekingunek aste honetan antolatutako tailerra: "*negozio edo enpresa txikia daukatenei pauta batzuk eman nahi izan dizkiegu sare sozialetan nola hasi, lehenengo pausoak nola eman erakusteko*", azaldu digu Loitxatek. Sare sozial jakin batean sakondu beharrean, gaur egun sarean daudenen errepasoa egin dute. "*Helburua sarean dauden aukerak nola aprobetxatu azaltzea izan da*".

Sare sozialek dauzkaten gauza positiboak zein negatiboak komentatu dituzte Arrate Kultur Elkartean izandako saioan. "*Sarean ez daudenak aukera batzuk galtzen ari direla uste dut. Garrantzitsua da hor egotea. Dena dela, esparru digital horretan mugitzea ez da erreza, alde batetik ez dagoelako ezagutza handirik batez ere adin jakin bat dutenen artean. Bestetik, beste faktore garrantzitsu bat dedikazioa da: oso erreza da Facebook, Twiter, Instagramen kontua zabaltzea, baina gero hori mantendu, elikatu egin behar da. Horrek azkenean denbora eskatzen du. Ez baldin bada enpresa bat subkontratatzen norberak egin beharreko gauza da, eta argi utzi behar da sare sozialek denbora asko jaten dutela. Horretaz gain, sarean esaten denarekin kontu handia izan behar da.*

Sare sozial erabilienak – Facebook, Twiter eta Instagram gehienbat– eta Google Places, Pinterest edo Linkedin modukoak aipatzeaz gain, GPS-aren funtzionalitatea erabiltzen duten sare sozialak aztertu dituzte. "*Esate baterako Foursquare eta Yelp, hauetan negozioen zerrendaz gain, iritziak ere eman daitezke, eta jendeak gero iritzi horiek kontutan hartzen ditu, fidatu egiten da. Bestalde, Google Business dago. Ez da sare sozial bat, Google Maps-en agertzeko erabili daitekeen funtzionalitatea da. Norbaitek Google-en negozio edo enpresa bat bilatzen baldin badu errekuadro baten agertzen dira datu guztiak: helbidea, telefonoa, argazkia, ordutegia... Doanekoa da eta Google-en agertzen zara. Nik uste dut agertzea beti dela ona*", esan digu Loitxatek.


*Miguel Loitxate Ekinguneko bazkideak sare sozialen inguruko hitzaldia eman zuen.*

Ekingunek antolatu du tailerra. Loitxate Ekinguneko bazkidea da eta Eibar eta inguruko ekintzaileak animatu nahi ditu bertan parte hartzera: "*Elkartearen bazkideen artean gogoa zegoen sare sozialen gaia jorratzeko, hortik sortu zen eskaera. Ni Ekinguneko bazkide naiz eta nire burua eskaini nuen hitzaldia emateko. Ekinguneko bazkideak talde edo enpresa ekintzaileak gara, eta bata bestearengandik ikasteko eta gauzak partekatzeko gogoak batzen gaitu. Debabarreneko edozeini zabalik dago elkartea, baldintza bakarra ekintzailea eta enpresa munduan saltseroa izatea da. Harremanak eta sinergiak sortzen dira eta hau oso interesgarria da*".

## Lonifasiko.com

Lonifasiko.com bloga sortu zuen 2012an Miguelek, bidaietan eta gastronomian oinarritutako bloga. 4 urte ondoren balorazio positiboa egiten du Miguelek. "*Hobby moduan sortu banuen ere orain nola profesionalizatu dezakedan aztertzen ari naiz. Ingenieritza informatikoa ikasi nuen, eta horretaz gain beti gustatu zait idaztea. Bidaiatzea eta jatea niretzako hobby bat da eta hau lonifasiko.com blogean argi ikusten da. Blogarekin marka moduko bat sortu da (Lonifasiko Social Media) eta oso ondo doa, bisita kopuru handia daukagu. Blogen munduan gurea ez da oso ohikoa: familian egiten ditugun esperientziak kontatzen ditugu, umore pertsonala ere sortzen da hor. Gure istorio pertsonalak sartzen ditugu, alabarekin bidaiatzen bizi ditugunak, esate baterako. Gure istorioa da eta horrek bereizten gaitu*". Aldi berean, orain sare sozialen munduan murgilduta dago eta turismo eta gastronomia mailako pare bat kontu kudeatzen dihardu.

MIKEL LARREATEGIK lasaitu ederra hartuko du gaurko Klub Deportiboko batzar orokorrean bere presidente kargua lagata. Postu hori hartu zuenean ez zuen imaginatuko hamar urte egingo zituela karguan, horrek dakarren bilera eta bestelako erantzukizunei lotuta. Baina etapa bat bete du eta hor lagun izan dituen zuzendaritza taldekoak ere berarekin joango dira, erreleboa hartuko dutenei laguntzeko prest. Batzar orokorra Deporren bertan izango da gaur, gaueko 20:00etan.

# “Klub Deportiboa zerbitzu kluba da eta filosofia horri eutsi behar dio”




Mikel Larreategi

*– Zer moduz joan da azken hamarkadako esperientzia Klub Deportiboko presidente moduan? Espero zenuenarekin egin duzu topo? Ikasteko astirik bai?*

Ikasi asko egin dut, baina kudeaketaz batez ere. Ez dakit zorionez edo zoritxarrez izan den, baina alor horretan derrigorrezkoa egin zaigu ikastea. Hasieran koordinazio-lana zena urteekin idazkaritza-lana izatera pasatu da. Krisiak ere bete-betean harrapatu gintuen eta, horrekin batera, diru-laguntzak eskatzea lan handiagoa eman zigun, gastukontzentzioarekin ikasi behar izan genuen bizitzen, Miguel Diego hil ondoren Kiroldegiaren kudeaketa aldatu zen... Goizetik gauera hainbat aldaketekin jakin behar izan genuen moldatzen, baina hori guztiori estabilizatzen joan dela esan genezake.

*– Klub Deportiboagoa jantziagoa lagako duzue etorkizunerako diozunari aurre egin eta gero?*

Lagatzen duguna lan orokorra da, batez ere kudeaketan eta koordinazioan zentratzen dena. Klubaren hamahiru batzordeak mini-klubak balira funtzionatzen dute aspalditik eta hori bada laguntza. Horregatik, egindako lana aberasgarria izan dela esango nuke. Hori bai, Administrazioarekin beste modu batera jokatzen moldatu behar izan dugu, diru-laguntzak eskatzerakoan-eta paperak zelan bete eskakizunei modu egokian erantzuteko.

*– Kudeaketa profesionala/amateurra dago eztabaidan. Nondik jo daiteke? Administrazioak lagun dezake?*

Argi dago lagun dezakeela: dirua ipintzen badu, profesionalen alde eginez. Klubaren diruarekin ezin da administratatzaile bat kontratatu. Horretarako daude Euki, Somos edo Gaurve, esaterako. Baina klubean argi daukagu gure funtzioa dela kirol-ekintzak sustatu eta egitea; ez gaudela hemen administrariei dirua emateko. Bestela, dena pribatizatu beharko genuke; eta ez gaude bide horren alde.

Klub Deportibotik herrian antolatzen dugun guztiaz konturatzen da Administrazioa? Galdera egiten dut, askotan horren seinalerik behintzat ez duelako ematen. Eibarko Udalak ezingo luke antolatzen dugunaren laurdena ere antolatu. Esaten dizutenean “legeak esaten du” pentsatzen duzu bestelako jarrerarik ere hartu daitekeela. Gertutasunaren arabera ere desberdina da: Udalarekin, esaterako, harreman estuagoa dugu Diputazioarekin baino. Baina, orokorrean Administrazioa klubetik oso urrun dago, neurri berdinak eskatzen dituelako kopuru desberdinekin. Eta horretan gehiago saiatu beharko litzateke. Klub Deportiboak 18:00-etatik aurrera funtzionatzen du: gure errealitatea eta beste klubetako %90ena ez da eguerdiko 12:00etan telefonoa hartzekoa.

Gipuzkoako Diputazioak Kirol-Etxea sortu du bide horretan laguntzeko eta ez da ideia txarra. Aurretik ere euren 3 K proiektuan hartu genuen parte aholkulari lanak egiten zigun gure kudeaketa hobetzeko lanean eta horrek balio izan digu erreleboa egokiago egiteko. Gure lekukoa hartuko dutenek beste perspektiba batekin jokatu ahal izango dute: dokumentu-sorta behintzat eskura izango dute.

*– Zuen ondorengoak lotuta dituzue?*

Batzarrera itxaron beharko da. Ni ahalegindu nintzen lekukoa pasatzen, baina ezetz esan zidaten, birritan gainera. Baina gu bagoazenez, badirudi badagoela talde bat guk orain arte egindakoari jarraipena emateko. Nire animoak izango dituzte eta baita laguntza ere: eskua -edo esku biak- botatzeko prest nago, baina bileretan ez naiz izango. 1999tik, xakeko batzordearen ardura hartu nuenetik, nabil bileretatik irten gabe.

*– Zelako egoeran dago gaur egun Depor?*

Leku gehienetan bezala, jende gaztearen inplikazioa falta da. Gure finantzak egonkorrak dira, lokala gurea da, bagara 2.500 bazkide, batzorde bakoitzak bereari ondo eusten dio... baina errelebo falta nabarmena da. Oraingo gazteak beste mentalitate batekin datoz eta asko kostatzen zaie inplikatzea. Hau zerbitzu kluba da azkenean, hemen ez dago soldatapeko lanik. Argi dago filosofia kontua dela, baina ez dot uste komeni zaigunik hori aldatzea.

*– Ez da klub askorik egongo hainbeste batzordekin...*

13 klubeko kluba da gurea, arratsaldeko 19:00etatik aurrera funtzionatzen duena. Herriaren eta Administrazioaren aurrean eskaintzen duen indarra, batez ere kirol minoritarioen alde egiten duen beharrarekin, estimatzekoa dela uste dut: bakoitzak bere aldetik joz gero, zaila izango lukete diru-bila jotzea. Erakusleihoa ere bada: hor daude Kezkako dantzariak, baina baita kalean ikusten ez den atletismoaren esparrua, mendi irteerak, argazkilaritza taldea...

# Deltecoko duatloilariak bigarrenak Sopelan

**Aurreko zapatuan Sopelan jokatutako duatloian Delteco Eibar Triatloi bigarrena izan zen** taldekako sailkapenean, taldekide guztien lanari esker. Pello Osoro berriro ere aurrean izan zen (oraingoan podiumera igotzetik gertu, 4. postuarekin) eta puntuak lortu zituzten ere Txomin bere anaiak (18.a), Gonzalo Saezek (49.a), Andoni Mayok (52), Jon Illarramendik (62) eta Roberto Gartziak (72). Illarramendik lortu zuen, bai, podiumera igotzea, bigarrena izan zen-eta beteranoen 2. mailan.



*Illarramendi bigarrena izan zen bere mailan.*



*Jubenil mailako Unai Etxaburu.*

# Urbat denboraldiko partidu garrantzitsuenaren aurrean

**Aurreko asteburu bietako partiduetan lehenengo liderrari gauzak estu jarrita** eta oraingoan Waterpolo Navarrari 14-5 nagusitasunez irabazita, oraingoan mailari eusteko borroka horretan aurkari zuzena duen Leioaren igerilekuan du hitzordua Euskal Ligako Eibarko Urbatek. Seniorren garaipena ez zen bakarra izan zapatuan, jubenilen taldeak Donostiri irabazi ziolako 9-20 hiriburuan, partidu bikaina jokatu ondoren. Txapela kentzeko moduko partidua jokatu zuten Jol Sologaistuak zuzendutakoek, defentsa gogorrarekin donostiarren jokoa itzaltzea lortuz.




# Binakako txapelketako partidu handia Astelenan

**Lehen mailako binakako txapelketaren lehen fasea une erabakigarrian sartu da** azken bi jardunaldien faltan eta etzi Katedralak sailkapenerako erabakigarria izan daitekeen norgehiagoka hartuko du. Astelenako jaialdiaren partidu nagusian, finalerdietarako sailkatuta dagoen Aimar Olaizolak eta Urrutikoetxeak osatutako bikoteak ez dio gauzak erraz jarriko horren bila diharduen Ezkurdia-Barriola bikoteari. Partidu handia, beraz, edozein ikuspuntutik begiratuta, lehen itzulian euren artekoak erakutsi zuen moduan. Jaialdia hasteko, joan zen domekan Eibarren bertan debutatu zuen Martija izango dugu berriro, aurreko koadroetan Jaunarena lagun duela, Gorkak eta Ceciliok osatutako bikotearen aurka. Eta jaialdiarekin amaitzeko, promozioko binakako txapelketaren partiduan, Mendizabal III.a/Erostarbe eta Agirre/Larunbe bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Bestalde, Klub Deportiboko pilotariei dagokienez, infantil 1. mailako Azkargorta-Azkoitia bikotea Gipuzkoako Errendimendu txapelketako finalerdietarako sailkatu zen Arrasaten 18-15 irabazi eta gero. Bihar benjaminek jokatuko dute Arrasateko Uarkapen Antzuolako ordezkarien kontra.



# Somos Eibar Eskubaloiak Tolosa liderra hartuko du bihar 19:00etan

**Usurbilen erraz nagusitu eta gero (26-39), Fernando Fernandezen mutilek sailkapeneko hirugarren postura** egin dute jauzi, hor zegoen Huarteri aurrea hartuz nafarrek Egian galdu ondoren. Igoerako promozioa jokatzeko aukera emango lukeen Trapagaranen bigarren postua bi puntura dute eibartarrek, baina asteburu honetan aurkari ezin zailagoa hartuko dute Ipuruan: Tolosa liderra etorriko da bihar 19:00etan eta eibartarrek onena eman beharko dute lehian garaile irteteko. Usurbilen Lander Casado (9 golekin), Mikel Zuloaga (7rekin) eta Aitor Telletxea izan ziren goleatzaile nagusiak. **Avia Eibar Eskubaloia emakumezkoen senior taldeak**, bestalde, 30-26 nagusitu zitzaion Leitzarani. Azken herri horretako ordezkaria izan zuen aurkari probintziako 1. mailan jokatzen duen **Haritzak** ere, eibartarrak 30-27 nagusi izateko.

## Eibarrek Las Palmas hartuko du gaur 20:30ean Ipuruan

**Une honetan sailkapeneko jaitsiera postuetan dagoen Las Palmas izango da gaur** Ipuruan behar dituen puntu bila. Eibarrek ere ez du puntorik oparitzeko asmorik eta 42ra heltzeko bidean partidu hau izan daiteke egokienetakoa helburura gerturatzeko. Dani Garcia kapitaina taldera bueltatuko da partidu bateko zigorra beteta. Bestalde, taldearen beste bi peña sortu dituzte: "Peña Iruk" Irureta atezainaren izena **(argazkian)** daramanak eta Ekuadorren sortu duten bigarrena. Azken honek Guayaquilen izango du egoitza eta Gustavo Izurieta da presidentea. Peñak sortzeko kanpainak indarrean jarraitzen du eta, horretarako, http://www.sdeibar.com/ aficion/penyas/como-crear-unapena helbidera jo daiteke. Bestalde, Eskozia La Bravak Gaizka Garitano eta Txema Añibarro omenduko ditu bihar Untzagako jubilatu etxean.





## Hamabi txirrindulari Eibar Energia Hiriarekin

**Bihar goizeko 10:00etan hasiko du denboraldia Eibarko Klub Deportiboko elite-sub 23ko txirrindulari taldeak Zumaian jokatuko den lasterketan.** Eibar Energia Hiria - Debabarrena izenarekin izango da errepideetan une honetan 12 txirrindulari dituen taldea. Eibarkoak dira euretako bost: Iker Goikoetxea, Pablo Zabala, Imanol Martinez eta Txomin eta Pello Osoro anaiek. Soraluze eta Elgoibarko bina txirrindulari daude taldean eta ordezkari bana dituzte Ermuak, Bergarak eta Berastegik.



## Ander Romarate Euskal Herriko txapelduna berriro ere

**Iruñeko Amaya kiroldegian jokatutako igeriketa egokituaren Euskal Herriko txapelketan,** Konporta taldeko igerilari eibartarrak txapela jantzi zuen puntu gehien lortuta, emakumezkoetan Nahia Zudaire nagusitu zen bitartean. Romarateren beste taldekide batzuk ere nagusitu ziren hainbat probatan, tartean aurretik ere Paralinpiar Jokoetan parte hartu izan duen Richard Oribe.



## Miguel Gallastegik 98 urte

**Gaur egun Donostian bizi den pilotari-ohiak 98 urte egin zituen atzo.** 1918ko otsailaren 25ean Asoliartza baserrian jaiotako pilotaria hirutan izan zen buruz-buruko txapelduna: lehenengoan Atano III.ari irabaziz 1948an eta beste bietan Eibarren bizi izan zen Akarregi lekeitiarra gailenduz 1950 eta 1951n. Frontoian askotan izaten da eibartarra eta, horren adibide, aurreko domekan Astelenan izan genuen Xalaren agurraren egunean.



**JOXEAN gure lagunari**

**2. urteurrena** *(2014-II-25)*

**JAVI ETA IDOIA**

*Beti gure oroimenean*





GORKA LARRAÑAGA
(artista)

# "Hiriak anonimotasuna ematen dit eta ardurak beste batzuk dira"

**06/16** izenburua darama Gorka Larraña azkoitiarrak Portaleako erakusketa aretoan zabalik daukan erakusketak. Orain dela 10 urte Mexiko DFra joan zen bizitzera. Erakusketaren zatirik handiena (%70) Mexikotik ekarri du, eta beste zatia hemen zituen lanekin osatu du. Portalea ondo ezagutzen du, Mexikora joan baino lehen 3 urte eman baitzituen Eibarko marrazki eskolan lanean. Martxoaren 20ra arte zabalik egongo den erakusketan urte hauetan izan duen eboluzioa ikus daiteke. Pintura eta marrazkiaren bidez irudiak sortzen dituen artista da Gorka, eta horretarako inguruko objetuetara jotzen du.

*- Mexikon egindako lan batzuk eta aurretik egindakoak ere ikus daitezke. Nolako eboluzioa izan du zure lanak?*

Joan aurretik kontzeptualizazioa eta literatura asko interesatzen zaitzaidan eta gero konturatu naiz pintura pintura dela, berak bakarrik hitzegiten duela. Prozesoa ez da asko aldatu, kanpoko motiboak bilatu (kotxe zati bat, jostailu txiki bat...), argazkien bitartez erregistratu eta tresna birtualen bidez ordenagailuarekin landu. Ondoren, hori lientzoaren gainera eramaten dut.

Lehen,motiboak sarritan leihoak izaten ziren. Herri txikietan joera daukagu gure bizitza besteen bizitzan proiektatzeko, gure bizitza bizi beharrean besteena bizi dugu. Hiriak anonimotasuna ematen dit eta ardurak beste batzuk dira: inguruan ikusten ditudan objetoak, paisaje urbanoak...Gero eta argiago daukat zeintzuk diren nire obsesioak eta zeintzuk diren nire irudiak lantzeko moduak. Kuadroak oso koloristak dira, batzutan surrealistak. Bestalde, Mexikon marrazkilaritza boladan dago. Beti izan naiz oso trebea marrazten. Lehen ezkutatu egiten banuen ere orain Mexikon aktiboki erreibindikatu dut.

*- Zer aurkituko du erakusketara doan jendeak eta zelan animatuko zenuke?*

Artista garaikide bezala gaur egungo ikuslea interesatzen zait. Estimulu asko jasotzen ditugu eta gure kezka da nola lortu ikuslea kuadro bati begira gelditzea. Artea oso gauza serioekin lotzen dugu. Nire artea jendearentzat egindako artea da. Dibertigarria da, begiari jotzen



diona. Erakusketak erakartzen duen zerbait daukala esango nuke.

*- Arte galeria ere badaukazu Mexikon...*

NIre lanetik bizitzeko eta nire lana garatzeko aukera eman dit Mexiko DF-k. Arte galeria bat daukat eta han arte garaikidearen proposamenak egiten ditut. Horretaz gain, Unibertsitatean klaseak ematen ditut.

## Harixa Emoten Aritz Gorrotxategirekin

**Martitzenean 19:00etan Harixa Emoten literatur tertuliaren hileroko saioa** egingo dute Portalean. Datorren asteko idazle gonbidatua Aritz Gorrotxategi izango da eta, Antxon Narbaizak gidatuta, euskerazko irakurketa klubeko kideek "Koldar hutsa zara" eleberriaren egilearekin horri buruz solasean jarduteko aukera izango dute.




## Animaliak berbetan zapatuko ipuinean

**Bihar, Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan, "Bene benetan, animaliak berbetan"** izenburuko ipuin kontakizuna eskainiko du Oihana Etxegibelek Portalean, umeen liburutegian, 18:00etatik aurrera. Saioa 4 urtetik gorako umeentzat pentsatuta dago eta sarrera doan izango da.






## Primeran Tor magoarekin

**Domekan magia-ikuskizuna eskaini zuen Tor magoak** ...eta kitto!-n. Goiza primeran pasatu zuten ikuskizunera joan ziren ume eta gurasoek, eta bat baino gehiago aho zabalik gelditu zen mago ospetsuak egindako trikimailuekin.




# Errefuxiatuen irudiak domekara arte ikusgai

**Eguenaz geroztik "Supervivientes en busca de refugio. Krisi humanitarioan galdutakoak" izenburuko argazki erakusketa** dago ikusgai Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan, Hotz Errefuxiatuei laguntzeko taldeak antolatuta. Gaur eta bihar 19:00etatik 21:00era zabalduko dute eta domekan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Erakusketan Antonio Cossa, Urko Arroyo, Cesar Lopez Balan, Olmo Calvo eta Gabriel Tizon argazkilarien lanak ikusteko aukera egongo da eta, horrez gain, papiroflexia tailerra egingo dute.
Erakusketaren harira, bestalde, domekan errefuxiatuen eskubideen alde zuzeneko poesia eta musika emanaldia eta te degustazioa eskainiko dituzte, 18:00etatik 21:00etara, Itzamna akademiako poesia taldearen, Elena Martin Lapeiraren, Rosario Camposen, Eibar-Sahara Elkartearen eta Iraegui errotuloak enpresaren laguntzarekin.







# Emakumeen Eguna Topalekuan

**Martxoaren 8an mundu mailan gogoratzen den Emakumeen Egunaren harira,** Topalekurako hainbat ekimen antolatu dituzte Arrate Kultur Elkartekoek. Datorren astean, eguenean, "Nondik nora?" eta "Emakume iraultzaileak" erakusketa zabalduko dute arratsaldean (irekiera ekitaldiari laguntzeko luntxa eskainiko dute). Martxoaren 13ra arte egongo da ikusgai erakusketa eta egun osoan egongo da ikusteko aukera, tabernatik sartuta. Eta martxoaren 9an, berriz, "Prohibido recordar (Debekatuta dago oroitzea)", Txaber Larreategik eta Josu Martinezek zuzendutako dokumentala emango dute, 19:00etan eta, jarraian, "Educacion, memoria e historia de las mujeres vascas", Intxorta 1937 Kultur Elkarteak argitaratutako liburua aurkeztuko dute.




# Piropoak bozkatzeko epea zabalik

Udalak eta herriko bi euskaltegiek antolatutako piropo lehiaketarako 45 proposamen jaso dituzte eta orain horien artean gustokoena aukeratu eta horri botoa emateko epea zabaldu dute interneten, www.eibarko-euskara.com helbidean. Martxoaren 6a izango da botoa emateko azken eguna.






# Liburu aurkezpena

Martxoak 9an, 19:00etan Elene Lizarralde kazetari donostiarrak "Rocio en el corazón" liburua aurkeztuko du Portalean, areto nagusian, Juanma Canok aurkeztuko duen ekitaldian. Eleberria Ingalaterran, Bath hirian girotuta dago, baina iraganeko hainbat erreferentziatan Eibar agertzen da.




# Xaboi-ikastarorako taldea bete da

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako xaboi ikastarorako plaza guztiak bete dira eta, beraz, parte hartuko dutenen taldea osatuta dago. Ilunabarrian programaren barruan egingo den ikastaroan xaboi naturalak egiten ikasiko dute, saio bitan (martitzen eta eguaztenean, 19:00etatik 20:30era). Xaboi Punpuilak taldeak emango du kurtsoa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu 11, solairuartean).

# Sanjuanak prestatzeko bilera

San Juan jaiak prestatzeko bilera irekia deitu dute Kultura sailetik datorren asterako. Bilera martitzenean izango da, Portalean (1. pisuan), 19:00etan hasita eta egitaraua osatzen lagundu nahi duten guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte.



PEDRO ALBERDI

## Lehenengoa

Eibarren jaioa naiz 1957an. Jenderik gehiena bezala, ni ere harro nago nire jaioterriaz, eta edozer egingo nuke haren alde. Hala ere, ezin esango dut eibartar peto-petoa naizenik; besteak beste, bertako euskalkia -sortaldeko bizkaiera, Koldo Zuazo hizkuntzalariaren terminologian- hitz egiteko gauza ez naizelako, eta hamazazpi urte nuenetik Bilbon bizi naizelako.
Ama Gipuzkoa barrukoa nuen, Hernio mendiaren magalekoa hain zuzen, eta, nahiz Eibarrera ezkondu eta bere bizitzaren bi heren baino gehiago bertan eman, ez zuen sekula Eibarko eran egin berba. Bere sorlekuko hizkera gorde zuen, eta hala, seme-alaboi transmititu zizkigun hizkuntz formak ez dira Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar*-en biltzen direnak, ezpada Gipuzkoa erdikoak, Iñaxiomari Atxukarro edota Basarri bertsolariaren kontakizunetan agertzen direnak, esate baterako. Bestalde, gure gazte denboran, -frankismoaren bigarren erdialdean, alegia-, Eibarko mutil koskorrok, bai eskolan bai lagunartean, Cervantesen gaztelera garbia hitz egiten genuen beti; jator asko, gainera.
Hamazortzi urterekin, analfabetoa nintzen euskaraz. Hemeretzirekin, berriz, irakasle hasi nintzen Bilboko euskaltegi batean. Gaur egun bertan jarraitzen dudanez, ezingo dut esan oso lan-bizitza abenturazalea izan dudanik. Bidean geratu dira, halere, zenbait pasadizo eta gertakari, oroimenak berreskuratuko ote dituen zain.

# 39. ANTZERKI JARDUNALDIAK

## "Zic-Zag" (JOSEPH COLLARD)
*Otsailaren 26an, barixakuan, 20:30ean, Hezkuntza Esparruan (75 minutu)*



***Antzezlea: Joseph Collard***
***Zuzendaria: J. Collard***
*Lan hau egileak bakarka sortu duen lehen egitasmoa da. Adin eta lurralde guztietarako aproposa den ikuskizunak irudimeneko mundu zoragarrira eramango gaitu, irribarreak eta barre algarak bat egiten duten zoriontasun eta hunkidura malkoekin. Ikutu poetikoa ere badu eromenetik eratorritako zentzuak, batuketa horretatik sortu diren bere ibilbide profesionala markatu duten pertsonaia harrigarriekin gertatzen den modura. Hutsetik hasi eta keinuaz baliatuta, ez dagoena ikusarazten dio ikusleari.*

## "Moby Dick" (GORAKADA TEATRO)
*Otsailaren 27an, zapatuan, 17:00etan, Coliseoan (60 minutu)*

***Antzezleak: Aritza Rodriguez, Jose Cruz Gurrutxaga, ...***
***Zuzendaria: Jose Carlos Garcia***
*Ikusle mota guztiendako talde sormena da ikuskizun hau. Herman Melvilleren testu zoragarri bezain unibertsalean oinarrituta, elementu interesgarri ugari aurkezten zaie umeei. Guzti hori ikuslegoaren burmuinean finkatuko den antzezleen lanaren dinamismoarekin, elementu eszenikoen erabilera egokiarekin eta umoreari eta musikari esker. Hor lan bikaina egin du Fran Lasuen eibartarrak; berak biolinarekin eta Unai Lasok eskusoinuarekin girotuko dute antzezlana zuzenean.*



## "¡Como en casa ni hablar!" (FAEMINO Y CANSADO)
*Otsailaren 28/29an, domeka/astelehenean, 20:30ean, Hezkuntza Esparruan (90 min.)*



***Antzezleak: Carlos Faemino, Javier Cansado***
***Zuzendariak: C. Faemino, J. Cansado***
*Badira urte batzuk bikote honek euren arteko bat etortzeAren osotasuna lortu zuela; ba ikuskizun honekin heldutasuna baino haratago dagoena eskuratuko dute. Jenialtasunaren sinonimo diren bi pertsonaia hauek gure aurrean izatea pribilegio handia da. Ikuskizun honekin "ikusleak gutxienez emanaldian 23 aldiz barre egitea, pertsona bezala hobea izatea eta bizitzari zentzua hartzea" da bikoteak agertutako asmoa. Erakusten dute umorea, absurdoa eta surrealista izateaz gain, azkartzat ere jotzen da.*

## "Teresa, miserere gozoso" (TEATRO CORSARIO)
*Martxoaren 1ean, martitzenean, 20:30ean, Coliseoan (95 minutu)*

***Antzezleak: Rosa Manzano, Julio Lazaro, Cristina Calleja...***
***Zuzendaria: Luis Miguel Garcia***
*Santa Teresa de Jesus jaio zela bosgarren mendea ospatu zen iaz eta, horren harira, Pucelako konpainiaren antzezlan hau birjaiotze bat bezala aurkezten da, Teresa gaixotasun larri eta gogor baten ondoren heriotzaren atarira iritsi eta gero. Narrazio garbia, energia ugari, talentu handia eta emozio eta edertasun dosi neurrigabeak aurkituko ditugu lan horretan. Teresaren testuetan planteatzen diren galdera eta zalantzak azalduko dizkigute era ulerterrazean, ikusteko zein garaikideak diren.*





## "Arte de las putas" (JOTACCION / TEATRO DEL TEMPLE)
*Martxoaren 4an, barixakuan, 20:30ean, Coliseoan (80 minutu)*



## Mendaroko Bizi-Poza

Aurten 25 urte beteko dituen Mendaroko Bizi-Poza txarangak logotipo lehiaketa antolatu du. Aurkeztutako lanek kolore bakarra izan beharko dute eta martxoaren 30era arte jasoko dituzte, bizipozatxaranga@hotmail.com helbide elektronikoan. Irabazlearentzat 100 euroko sari bakarra emango dute.




## Kontzertua Soraluzen

Zapatuan 22:30etik aurrera The Guilt eta Le Prince Harry talde belgiarrek kontzertua emango dute Soraluzeko gaztetxean. Sarrerak 3 euro balio du.



## Herrixa Dantzan Elgetan

Domekan 19:00etatik aurrera "Herrixa Dantzan" egitasmoaren barruan saioa hartuko du Elgetako Espaloia kafe antzokiak, Txertubi taldearen eskutik. Aurreratu dutenez, emanaldian hiruzpalau pieza berri joko dituzte, ohiko errepertorioa osatzen dutenekin batera. Sarrera doan izango da eta parte hartzea libre.

# eguraldia (EUSKALMET.NET)




# hildakoak

- **Lazaro Martinez Abad.** 89 urte. 2016-II-18.
- **Bittori Arriaga Garitaonandia.** 99 urte. 2016-II-18.
- **Jesusa Uriguen Urionabarrenetxea.** 91 urte. 2016-II-19.
- **Dolores Urruzola Gorospe.** 90 urte. 2016-II-19.
- **Juan Mª Gonzalez Saenz de Biteri.** 58 urte. 2016-II-21.
- **Pedro Mª Azpiazu Elizburu.** 71 urte. 2016-II-22.
- **Carmen Domeque Jesus.** 97 urte. 2016-II-23.
- **Marino Plaza Plaza.** 72 urte. 2016-II-23.

# jaiotakoak

- **Abdul Hadi Ansar.** 2016-II-12.
- **Haizea Puerto Lasheras.** 2016-II-12.
- **Bruno Martinez Goikoetxea.** 2016-II-13.
- **Lore Azpiazu Arregi.** 2016-II-17.
- **Omar Bensarghin.** 2016-II-20.
- **Ariane Miranda Da Silva.** 2016-II-20.

# farmaziak

Barixakua 26
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
Zapatua 27
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Domeka 28
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Astelehena 29
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Martitzena 1
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
Eguaztena 2
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
Eguena 3
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Barixakua 4
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

# SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | 8 | | 6 | | 4 | | |
| | | | | | 1 | | | |
| | | | | | | 3 | 8 | 2 |
| | | 2 | | | 4 | | | 1 |
| 4 | | | 9 | | 6 | | | 8 |
| 3 | | | 1 | | | 7 | | |
| 9 | 3 | 4 | | | | | | |
| | | | 7 | | | | | |
| | | 1 | | 4 | | 5 | 6 | |

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 5 | 8 | 1 | 6 | 3 | 9 | 2 | 4 |
| 9 | 1 | 6 | 4 | 2 | 8 | 7 | 5 | 3 |
| 4 | 3 | 2 | 9 | 7 | 5 | 6 | 8 | 1 |
| 1 | 6 | 5 | 2 | 4 | 9 | 8 | 3 | 7 |
| 3 | 2 | 4 | 8 | 1 | 7 | 5 | 6 | 9 |
| 8 | 9 | 7 | 5 | 3 | 6 | 4 | 1 | 2 |
| 6 | 7 | 1 | 3 | 8 | 4 | 2 | 9 | 5 |
| 5 | 4 | 3 | 6 | 9 | 2 | 1 | 7 | 8 |
| 2 | 8 | 9 | 7 | 5 | 1 | 3 | 4 | 6 |

# telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 901 20 20 20 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Mendaro osp. | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 902 54 32 10 |
| Pesa | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 20 30 71 |
| | 943 20 13 25 |
| Alkohol.Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon/Alateen | 650 26 59 63 |

## Barixakua 26

### BIHARRIAN
**15:00.** Aulkiaren Diseinu Leihaketaren sari banaketa eta proposamenen erakusketa. Biharrian-en (Ubitxa 16-18).

### GAZTELEKUA
**16:30.** EibarKlik Lehiaketaren 3. argazkia argitaratzea eta Play/Wii. Indianokuan.

### BATZARRA
**19:30.** Klub Deportiboko ohiko batzar nagusia (20:00etan 2. deialdia). Klub Deportiboan.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK
**20:30.** *"Zic-Zag"* (Joseph Collard). 15 euro. Hezkuntza Esparruan.

### AFARIA
**21:30.** Pagatxa emakume elkartekoena, Javi Zabalak (Lisker) girotua. Unzaga Plaza hotelean.

## Zapatua 27

### ABIAN
**09:30.** Ezker abertzalearen eztabaida prozesuaren lehen batzarra. Arrate Kultur Elkartean.

### BABA-JAN SOLIDARIOA
**11:00-14:00.** Eibarko sozialisten eskutik, baba razioak 5 eurotan salgai. Dirua Euskadiko Polio Elkarteari emango diote. Untzagan, Amañan, Urkin eta Urkizun.

### ASTELENA HAUR PARKEA
**11:00-14:00 & 16:30-20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro. Astelena frontoian.

### ERREFUXIATUEN ALDE
**12:00.** Errefuxiatuen eskubideen aldeko martxa, CARE-k deituta. Txaleko erreflektantea jantzita eramatea eskatu dute. Untzagatik abiatuta.

### GAZTELEKUA
**17:00.** Sukaldaritza tailerra. Indianokuan.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK
**17:00.** "Moby Dick" (Gorakada haur antzerkia). Coliseoan.

### ESKULAN-TAILERRA
**18:00.** Eskulanak: *"Kaniken labirintoa".* El Corte Inglesean.

### ZAPATUKO IPUINA
**18:00.** *"Bene benetan animaliak berbetan"*, Oihana Etxegibel-en eskutik. Sarrera doan. Portalean

## Domeka 28

### GAZTELEKUA
**17:00.** Pelikula baten emanaldia. Indianokuan.

### ERREFUXIATUAK
**18:00.** Zuzeneko poesia eta musika emanaldia: *"Krisi humanitarioan galdutakoen alde".* Topalekuan.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK
**20:30.** *"¡Como en casa ni hablar!"* (Faemino y Cansado). Hezkuntza Esparruan.

## Astelehena 29

### IKASTEN
**10:00.** *"Telefono mugikorraren erabileraren hasiera"* tekno-foruma. Untzagako jubilatu etxean.

### CARE-REN BILKETA
**11:00-13:00.** Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

### ANTZERKI JARDUNALDIAK
**20:30.** *"¡Como en casa ni hablar!"* (Faemino y Cansado). Hezkuntza Esparruan.

## Martitzena 1

### IKASTEN
**10:00.** *"Nobela"* hitzaldia, Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

### SOLASALDIA
**12:30.** *"Ondo Egindako Lana"* programaren bosgarren saioa, Joan Mari Torrealdai eta Juan Jose Ibarretxerekin (euskeraz). Sarrera librea. Armeria Eskolan.

### IKASTEN
**16:00.** Puntu-tailerra.
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### CARE-REN BILKETA
**17:00-20:00.** Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

### IKASTAROA
**19:00.** Xaboia egiten ikastekoa. …eta kitto! Euskara Elkartean.

### HARIXA EMOTEN
**19:00.** Literatur tertulia: *"Koldar hutsa zara"* (Aritz Gorrotxategi). Portalean.

### BILERA
**19:00.** San Juan jaiak prestatzeko bilera irekia. Portalean (1. pisuan).

### ANTZERKI JARDUNALDIAK
**20:30.** *"Teresa, Miserere gozoso"* (Teatro Corsario). 12 euro. Coliseoan.

## Eguaztena 2

### IKASTEN
**11:00.** Kafe-tertulia: *"Hondakinen birziklapena eta tasen igoera".* Untzaga jubilatu etxean.

### CARE-REN BILKETA
**17:00-20:00.** Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

### MANIFESTAZIOA
**19:00.** Naroa Ariznabarreta eibartarraren epaiketa dela eta, Eibarko Librek deitutako manifestazioa. Untzagatik abiatuta.

### HITZALDIA
**19:00.** *"EIT edo Eraikinaren* Ikuskapen Teknikoa", Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak antolatuta. Hizlaria: Judith Ubarrechena (Gipuzkoako Arkitektoen Elkargoko komunikazio arduraduna). Sarrera irekia. Portalean.

### IKASTAROA
**19:00.** Xaboia egiten ikastekoa. …eta kitto! Euskara Elkartean.

### EIBARKO KANTUZALEAK
**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 3

### IKASTEN
**10:00.** *"Nobela"* hitzaldia, Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

### CARE-REN BILKETA
**17:00-20:00.** Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

### MAHAI-INGURUA
**19:00.** *"Emakumeak kirolan"* (Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira). Parte-hartzaileak: Ainhoa Azurmendi (psikologoa eta kiroletako aholkularia) eta Eibarko Errugbiko neska taldea. Portalean (areto nagusian).

### BILERA IREKIA
**19:00.** Kaleratzeak Stop Debabarrenarena. Portalean (3. solairuan).

### KALEETAN KANTUZ
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


Zorionak, ESTRELLA, gaur zure eguna dalako. Ondo ospatu eguna eta muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, ENEKO, hillaren 17xan lau urte bete zenduazen-eta. Muxu haundikote bat, zaren modukua zarelako. Etxekuen partez.


Zorionak, EUKEN!, gaur 3 urte bete dozuz-eta. Muxu potolua famelixaren eta, batez be, zure lehengusu Xuhar-en partez.


Zorionak, JON, aurreko zapatuan lau urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Malenen partez.


Zorionak, NAHIA, gure printzesa, hillaren 22xan 8 urte egin zenduazen-eta. Patxo haundi bar etxekuen eta, batez be, Heleneren partez.


Ongo etorri, OIHAN Artetxe Mujika, hillaren 20xan gure artera etorri ziñan-eta. Patxo bana umiari, amatxori, aitatxori eta Ikerri.


Zorionak, MAIALEN, bixar 11 urte beteko dozuzelako. Ondo-ondo ospatu eguna, famelixaren partez.


Zorionak, JOSU, atzo zazpi urte pottolo egin zenduazen-eta. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, JON, bixar urtetxua beteko dozu-eta! Muxu pilla bat danon eta, batez be, Maialenen partez.


Zorionak, UNAI, gaur zazpi urte betetzen dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, ENEKO, martxoaren 2xan 10 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa eguna famelixaren partez.


Zorionak, IRENE, domekan 11 urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, GARAZI Luis, atzo 11 urte bete zenduazen-eta! Famelixaren partez.


Zorionak, LUIS Salazar, atzo zure eguna izan zalako. Etxekuen partez.


Zorionak, MAIALEN Acosta, haraiñegun urtiak egin zenduazen-eta. Etxekuen partez.


Zorionak, ODILE!, gure etxeko printzesak bixar lau urte beteko dittu-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez.


Zorionak, ÉIRE Uzkudun, amama eta tien printzesak lau urte egin zittuan-eta atzo. Muxu haundi bat, pitxirri!!!


Zorionak, MIREN, sorgintxo!, haraiñegun 5 urte egin zenduazen-eta! Musutxo asko famelixaren eta, batez be, Arrateren partez


Zorionak, AITOR (martxuaren 4an bost urte egingo dozuz) eta GARI (atzo bi bete zenduazen). Milla muxu gure etxeko astokilluentzako famelixaren partez.


Zorionak, ANE eta PABLO, bi eta zazpi urte bete dozuez-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, EKHI, bixar urtetxua beteko dozu-eta! Aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**27an: 17:00, 19:45, 22:30**
**28an: 17:00, 20.00**
**29an: 20:30**

**"Tenemos que hablar"**
*Zuzendaria:* David Serrano

**(2 ARETOAN)**
**27an: 19:45, 22:30**
**28an: 20.00**
**29an: 20:30**

**"Carol"**
*Zuzendaria:* Todd Haynes

**(ANTZOKIAN)**
**27an: 19:45, 22:30**
**28an: 17:00** (2 aretoan), **20.00**
**29an: 20:30**

**"¡Ave, César!"**
*Zuzendaria:* Cohen anaiak

**(ANTZOKIAN)**
**27an: 17:00** (2 aretoan)
**28an: 17:00**

**"Zootrópolis"**
*Zuzendaria:* Byron Howard

# iragarkilaburrak


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarren, Jardiñeta kalean. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Egoera onean. Tel. 610-715548 eta 680-880140.
– Pisua salgai Elgoibarren. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa, balkoiarekin. Eguzkitsua eta kanpora begira. Egoera onean eta merke. Tel. 685-753453 eta 656-728618.

### 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Jardiñeta kalean. 3 logela eta terraza. Kalefakzioarekin. 480 euro hilero. Tel. 669-682148. Asier.
– Eibarko neska bik pisua hartuko lukete alokairuan. Tel. 605-759774 eta 677-108554.
– Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-377921.
– Pisua alokagai Eibarren. Jantzita, dena kanpora begira eta oso egoera onean. Tel. 677-865362. Alex.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Toyota Avensis familiarra salgai. 162.500 km. 2004an matrikulatuta. 3.500 euro. Tel. 696-817026. Nerea.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

### 3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da etxeak garbitu eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 633-808931.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-911709.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 673-404402.
– Emakumea eskaintzen da etxeko beharrak edo garbiketa egin, nagusiak zaintzeko, etb. Tel. 666-380843.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketak egiteko, etb. Tel. 666-074924.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 680-973549.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 603-683176.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-893250.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 744-403068.
– Gizarte-langilea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 686-592841.
– Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 655-143467.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-458271.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (Lanbideren titulua) eta beste lanetarako. Tel. 640-209948.
– Emakume euskalduna eskaintzen da orduka etxeetan lan egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 943-744033 eta 637-102725.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita gauez ere) zaintzeko, pegorak garbitzeko, etabar. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 664-065826.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 632-506715.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 634-127294 eta 672-867999.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 604-331053.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 608-356453.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko (pegorak, enpresak...). Tel. 620-172543.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 679-910991.
– Neska eskaintzen da 13:00etatik aurrera garbiketa lanak egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-743638.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 633-357538.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-995976.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel. 656-866255.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu (baita gauez ere) eta garbiketak egiteko. Tel. 632-337083.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 631-425686.
– Emakumea eskaintzen da pegorak garbitu eta umeak edo nagusiak (baita gauez ere) zaintzeko. Tel. 632-771519.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketak egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-748977.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketak egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-454417.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 627-892991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-291645.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 637-071779.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaindu eta lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 632-573554.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 658-458061.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 672-620027.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 678-201477.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 686-561811.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 692-588524.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 631-377421.

### 4.2. Langile bila

– Emakumea behar da etxeko lanetarako. Deitu 18:00etatik aurrera. Tel. 649-388582.
– Euskalduna behar da asteburuetan barran Eibarko jatetxe batean lan egiteko. Bidali curriculum-a argazkiarekin 46 postakutxatilara.
– Pertsona bat behar da asteburuetan eta jaiegunetan Eibarko taberna batean lan egiteko. Tel. 650-409249.
– Neska behar da Arroan interna. Tel. 653-569293. Lourdes.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da Eibarko akademia batean unibertsitate mailako Algebra, Kalkulo etabarreko klaseak emateko. Tel. 679-560138.

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
– Klase partikularrak emango nizkieke DBHko eta Batxilergoko ikasleei euren etxeetan. Tel. 672-382451.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Juan Serrano margolariaren hainbat kuadro salgai. Tel. 656-710155 eta 943-207703.
– Fuchs & Mohr hormako piano alemaniarra salgai. Intxaurrondo kolorean lakatuta. Taburetea opari. Deitu 19:00etatik aurrera. Tel. 656-758793.
– Neskaren jaunartzeko soinekoa salgai. Berria. 14 urtekoaren neurrikoa. Tel. 638-605006.– Sehaska salgai, koltxoiarekin. Ia berria. Tel. 687-675484. Arantxa.
– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Betaurreko graduatuak (estutxearekin) galdu nituen aurreko barixakuan, 23.30ak aldian, Isasiko eskilaretatik Slow tabernara arteko tartean. Tel. 695-379921.
– Txamarra beltza galdu nuen aurreko astelehenean (urtarrilaren 25ean) T. Etxebarria eta Estaziño kaleen artean. Poltsa baten barruan zegoen. Tel. 690-311429.

### 6.4. Bestelakoak

– Jazz-gitarra ikasten nabil nire kabuz. Lagun bat nahi dut (gitarra edo beste instrumenturen bat) elkarrekin ikasteko. Tel. 649-088883.

# CAMBRIDGE ENGLISH
## Language Assessment
**Authorised Centre**

*CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438*

**MAIATZA-EKAINEKO DEIALDIA**

**AZTERKETAK: Eibar, Durango eta Arrasate**

**MATRIKULAK: Martxoaren 1etik 17ra**

**INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:**

| | | |
|---|---|---|
| ARRASATE: | Parlance | 943 77 06 83 |
| Idiomaster | 943 79 07 84 | |
| BERGARA: | Espolon School of English | 943 76 03 53 |
| EIBAR: | Anglo-American | 943 20 01 08 |
| | Link Idiomas | 943 20 39 59 |
| ERMUA: | Akerlei | 943 17 66 32 |
| ELGOIBAR: | Kensington School of English | 943 74 02 36 |
| | Key Academia de Inglés | 943 74 30 44 |
| OÑATI: | Academia Sheila Fritz | 943 78 20 91 |
| ONDARROA: | Howdy | 96 683 23 79 |
| DEBA: | Akabi | 943 19 16 79 |
| | North Street English | 943 19 25 00 |
| DURANGO: | San Jose Maristak | 94 681 00 58 |
| MENDARO: | Akabi | 943 75 50 55 |
| MARKINA: | Chatterbox | 94 616 96 39 |
| ELORRIO: | Ontrack Hizkuntza | 94 658 46 73 |
| BERRIZ: | Speak up | 94 622 52 94 |
| ZUMAIA: | Golden Gate | 943 86 50 20 |
| MUTRIKU: | Gogoz | 943 60 43 58 |

**AZTERKETAK ETA DATAK:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| STARTERS | (azterketa osoa) | LARUNBATA | Ekainak 11 |
| MOVERS | (azterketa osoa) | LARUNBATA | Ekainak 11 |
| FLYERS | (azterketa osoa) | LARUNBATA | Ekainak 11 |
| K.E.T. (For Schools) | (Papers 1,2,3) | LARUNBATA | Ekainak 4 |
| (For Schools) | (Speaking) | Maiatzaren 28tik Ekainaren 5era | |
| P.E.T. (For Schools) | (Papers 1,2,3) | LARUNBATA | Ekainak 4 |
| (For Schools) | (Speaking) | Maiatzaren 28tik Ekainaren 5era | |
| F.C.E. | (Papers 1,2,3,4) | LARUNBATA | Ekainak 4 |
| | (Speaking) | Maiatzaren 21etik Ekainaren 12ra | |
| C.A.E. | (Papers 1,2,3,4) | LARUNBATA | Ekainak 4 |
| | (Speaking) | Maiatzaren 20tik Ekainaren 5era | |
| C.P.E. | (Papers 1,2,3,4) | OSTEGUNA | Ekainak 9 |
| | (Speaking) | Maiatzaren 20tik Ekainaren 12ra | |
| P.E.T. | (Papers 1,2,3) | OSTIRALA | Maiatzak 27 |
| | (Speaking) | Maiatzaren 20tik 29ra | |
| F.C.E. FS | (Papers 1,2,3,4) | LARUNBATA | Ekainak 11 |
| | (Speaking) | Ekainaren 4tik 12ra | |
| F.C.E. | (Papers 1,2,3,4) | LARUNBATA | Ekainak 25 |
| | (Speaking) | Ekainaren 18tik 26ra | |
| C.A.E. | (Papers 1,2,3,4) | LARUNBATA | Ekainak 25 |
| | (Speaking) | Ekainaren 17tik 26ra | |



# etakitto.eus

...eta Kitto!

- Herriko aktualitatea jarraitzeko
- Argazki-bildumak ikusteko
- Euskara elkarteko proiektu guztiei buruzko informazio eguneratua etengabe jasotzeko
- Zorion-agurrak
- Zinea
- Iragarki laburrak
- Berbetan
- Farmaziak
- Kultur-agenda
- Kirol-agenda eta asteburuko emaitzak

**Kultur eskaintza guztia klik bakarrean**



**etakitto.eus**



Itzuli dira Cinking Eskaintzak.
Ez duzu pentsatuko ihes egiten lagatzea, ezta?
5 urteko bermea km. mugarik gabe | 5 urteko laguntza errepidean | 5 urteko mantenimendua
OFERTAK
cinking
PIENSA EN 5
i20
9.450 € -tik aurrera
i30
11.740 € -tik aurrera
i10
7.490 € -tik aurrera
HYUNDAI
NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.
EURO2016 FRANCE
5 años
Garantía sin límite de km.
OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
ELGOIBAR Olaso Polig., 17
943 74 14 80
i10 Gama: CO2 Emisioak (gr/km): 98–142. Kontsumo mistoa (1/100 km): 4,3–6,2. i20 Gama: CO2 Emisioak (gr/km): 92–144.
Kontsumo mistoa (1/100 km): 3,5–6,2. i30 Gama: CO2 Emisioak (gr/km): 99–169. Kontsumo mistoa (1/100 km): 3,8–7,3.
PVP i10 1.0 MPi (66CV) BLUED ECO kLASS (7.490 €). PVP i20 1.2 MPi (85CV) ESSENCE (9.450 €). PVP i30 5p 1.4 MPi (100CV) BLUED ESSENCE (11.740 €). Penintsulan eta Balearetan gomendatutatko PVP-a. BEZ, garraioa, Matrikulazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza eta Gobernuaren PIVE Plana (Gobernuaren Plan horretako baldintzen betearazteari lotuta) barne. Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 6.000 € ko (i10 aren kasuan), 8.000 € ko (i20ren kasuan) eta 10.000 € ko (i30ren kasuan) gutxieneko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziazioa. 2016/02/29ra arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modeloak: i10 Style, i20 Style eta i30 Style.. Mantenimendua ibilgailuaren finantziazioari lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduaren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.




RESIDENCIAL
ORTIZ BIZIGUNEA
2 eta 3 logelako
etxebizitzak
igerilekuarekin
Aukeratu zurea lehenbailehen eta zure gustora egokituko dugu
2. FASEKO OBRAK MARTXAN
ZUMAIAN
1. FASEKO AZKEN ETXEBIZITZAK PREZIO BEREZIETAN
Sustatzailea
inmo loiola
Eraikitzailea
ALTUNA Y URIA
Salmenta Puntua
Azkue
INMOZUMAIA
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
Telefonoa 606 957 532
E-posta info@inmoloiola.com
Web orria zumaianbizi.com